

# EGOERA-BALANTZEA: AKTIBOA

## 2024KO EKAINAREN 30EKO DATAKOA

OHARRAK	AKTIBOA	2024.06.30	2023.06.30
	<b>A) EZ-OHIKO AKTIBOA</b>	<b>117.560.312,97</b>	<b>102.646.500,13</b>
<b>5</b>	<b>I. Kirol-ibilgetu ukiezina</b> 1. Jokalariak eskuratzeko eskubideak	<b>22.666.774,22</b> 22.666.774,22	<b>5.755.773,51</b> 5.755.773,51
<b>6</b>	<b>II. Ibilgetu ukiezina</b> 5. Aplikazio informatikoak	<b>1.116.143,75</b> 1.116.143,75	<b>1.014.224,90</b> 1.014.224,90
<b>7</b>	<b>III. Ibilgetu materiala</b> 1. Lur-sailak eta eraikinak 2. Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu material bat 3. Aribideko ibilgetua eta aurrerakinak	<b>41.058.881,53</b> 33.883.501,17 7.154.570,36 20.810,00	<b>42.227.420,81</b> 34.065.782,25 8.092.408,56 69.230,00
<b>10</b>	<b>V. Epe luzeko inbertsioak taldeko enpresetan eta elkartekideetan</b> 1. Ondare-baliabideak	<b>52.589.829,53</b> 52.589.829,53	<b>53.428.022,24</b> 53.428.022,24
<b>11</b>	<b>VI. Epe luzeko finantza-inbertsioak</b> 1. Ondare-baliabideak 5. Bestelako finantza-aktiboak	<b>128.683,94</b> 6.000,00 122.683,94	<b>221.058,67</b> 6.000,00 215.058,67
	<b>B) AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>73.049.405,73</b>	<b>89.098.673,15</b>
	<b>II. Izakinak</b> 1. Komertzialak	<b>210.056,17</b> 210.056,17	<b>264.445,63</b> 264.445,63
<b>12</b>	<b>III. Zordunak</b> 2. Taldeko entitateak eta elkartekideak, zordunak 3. Kirol elkarteak, zordunak 4. Zenbait zordun	<b>28.568.708,47</b> 735.901,30 20.840.817,53 6.991.989,64	<b>19.118.310,89</b> 735.901,30 9.088.733,93 9.293.675,66
<b>9</b>	<b>V. Epe laburreko finantza-inbertsioak</b> 5. Zorra adierazten duten baloreak 7. Bestelako finantza-aktiboak	<b>14.238.500,40</b> 14.200.306,36 38.194,04	<b>29.133.533,88</b> 28.325.672,62 807.861,26
	<b>VI. Epe laburreko periodifikazioak</b>	<b>7.414.910,09</b>	<b>3.904.010,23</b>
	<b>VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</b> 1. Diruzaintza	<b>22.617.230,60</b> 22.617.230,60	<b>36.678.372,52</b> 36.678.372,52
	<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>190.609.718,70</b>	<b>191.745.173,28</b>

# EGOERA-BALANTZEA: PASIBOA

## 2024KO EKAINAREN 30EKO DATAKOA

OHARRAK	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2024.06.30	2023.06.30
	<b>A) ONDARE GARBIA</b>	<b>105.722.469,73</b>	<b>105.393.567,07</b>
<b>14</b>	<b>A - 1) Funts propioak</b>	<b>104.339.408,00</b>	<b>104.091.958,00</b>
	<b>I. Funts soziala</b>	<b>100.548.448,44</b>	<b>100.300.998,44</b>
	1. Funts soziala	100.548.448,44	100.300.998,44
	<b>III. Erreserbak</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>3.790.959,56</b>
	2. Beste erreserba batzuk	3.790.959,56	3.790.959,56
	<b>VII. Ekitaldiaren emaitza</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>15</b>	<b>A - 3) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak</b>	<b>1.383.061,73</b>	<b>1.301.609,07</b>
	<b>B) PASIBO EZ-ARRUNTA</b>	<b>24.650.618,87</b>	<b>38.815.475,19</b>
<b>16</b>	<b>I. Epe luzeko hornikuntzak</b>	<b>24.644.618,87</b>	<b>38.809.475,19</b>
	4. Bestelako hornidura batzuk	24.644.618,87	38.809.475,19
<b>17</b>	<b>II. Epe luzeko zorrak</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>
	6. Bestelako finantza-aktiboak	6.000,00	6.000,00
	6.2) Bestelakoak	6.000,00	6.000,00
	<b>C) PASIBO ARRUNTA</b>	<b>60.236.630,10</b>	<b>47.536.131,02</b>
<b>11.3</b>	<b>II. Epe laburreko hornidurak</b>	<b>5.863,30</b>	<b>63.728,16</b>
<b>17</b>	<b>III. Epe laburreko zorrak</b>	<b>921.960,65</b>	<b>759.448,03</b>
	4. Kirol elkarteekiko zorrak	422.662,83	80.013,68
	6. Bestelako finantza-pasibo batzuk	499.297,82	679.434,35
	6.2) Bestelakoak	499.297,82	679.434,35
<b>18</b>	<b>V. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste zor batzuk</b>	<b>39.782.623,51</b>	<b>29.177.571,09</b>
	1. Hornitzaileak	3.622.616,83	2.557.727,99
	2. Taldeko enpresen eta elkartuen hornitzaileak	121.901,20	-
	3. Zenbait hartzekodun	785.269,14	611.054,82
	5. Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	3.409.739,79	1.012.029,24
	7. Herri-administrazioekiko bestelako zorrak	31.843.096,55	24.996.759,04
<b>19</b>	<b>VI. Epe laburreko periodifikazioak</b>	<b>19.526.182,64</b>	<b>17.535.383,74</b>
	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>190.609.718,70</b>	<b>191.745.173,28</b>



# GALDU-IRABAZIEN KONTUA

## 2024KO EKAINAREN 30EKO DATAKOA

OHARRAK		ZORRA (HARTZEKOA)	
		2024.06.30	2023.06.30
	<b>A) ERAGIKETA JARRAITUAK</b>		
<b>21.4</b>	<b>1. Negozio-zifraren zenbateko garbia</b>	<b>124.472.153,56</b>	<b>112.781.945,79</b>
	a) Kirol-arloko diru-sarrerak	98.247.400,24	87.672.699,03
	b) Bazkide eta abonatuaren bidezko diru-sarrerak	26.224.753,32	25.109.246,76
	<b>2. Amaitutako eta fabrikatzen ari diren produktuen izakinen aldaketa</b>	<b>-54.389,46</b>	<b>-1.371.220,98</b>
	<b>4. Hornikuntzak</b>	<b>-2.472.754,34</b>	<b>-3.035.580,91</b>
	b) Kanpoko beste kontsumo eta gastu batzuk	-2.472.754,34	-3.035.580,91
	<b>5. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk</b>	<b>5.073.125,66</b>	<b>8.160.279,19</b>
<b>21.5</b>	a) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	4.751.823,79	8.098.464,49
<b>21.6</b>	b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapen-dirulaguntzak	321.301,87	61.814,70
<b>21.2</b>	<b>6. Langile-gastuak</b>	<b>-112.798.317,77</b>	<b>-98.856.310,10</b>
	a) Kirol-lantaldearen soldatak eta ordainsariak	-95.739.763,60	-83.671.349,68
	b) Bestelako soldatak, ordainsariak eta antzekoak	-13.071.308,06	-11.647.437,36
	c) Karga sozialak	-3.987.246,11	-3.537.523,06
	<b>7. Ustiapeneko beste gastu batzuk</b>	<b>-14.388.018,12</b>	<b>-2.386.978,07</b>
	a) Kanpo-zerbitzuak	-14.623.209,67	-10.584.557,37
	b) Zergak	-437.047,10	-462.802,55
	c) Joan-etorriak	-3.396.185,34	-3.168.624,29
<b>16</b>	e) Merkataritza-eragiketen ondoriozko horniduren galerak, narriadura eta aldaketak	14.164.856,32	21.515.907,34
<b>21.3</b>	f) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-10.096.432,33	-9.686.901,20
<b>5,6 y 7</b>	<b>8. Ibilgetuaren amortizazioa</b>	<b>-7.170.319,22</b>	<b>-17.001.336,48</b>
<b>15</b>	<b>9. Ibilgetu ez-finantzarioko dirulaguntzen egozpena eta bestelakoak</b>	<b>182.200,95</b>	<b>116.632,39</b>
	<b>11. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzeen emaitza</b>	<b>6.611.500,00</b>	<b>698.255,59</b>
	a) Narriadura eta galerak	0,00	545.868,54
<b>21.8</b>	b) Ibilgetu ukiezinaren, materialaren eta bestelakoen besterentzeen emaitzak	6.611.500,00	152.387,05
<b>21.7</b>	<b>13. Beste emaitza batzuk</b>	<b>986.639,13</b>	<b>1.348.244,26</b>
	<b>A.1). USTIAPENKO EMAITZA</b>	<b>441.820,39</b>	<b>453.930,68</b>
	<b>14. Diru-sarrera finantzarioak</b>	<b>521.105,03</b>	<b>761.624,45</b>
	b) Balore negoziagarrienak eta beste finantza-tresna batzuenak		
	b2) Hirugarrenetan	521.105,03	761.624,45
	<b>15. Finantza-gastuak</b>	<b>-124.732,71</b>	<b>-126.059,40</b>
	c) Hirugarrenetikiko zorrak	-124.732,71	-126.059,40
<b>10</b>	<b>18. Narriadura eta finantza-tresnak besterentzearen emaitza</b>	<b>-838.192,71</b>	<b>-1.089.495,73</b>
	a) Narriadurak eta galerak	-838.192,71	-1.089.495,73
	<b>A.2) FINANTZA-EMAITZA</b>	<b>-441.820,39</b>	<b>-453.930,68</b>
	<b>A.3) ZERGEN AURRETIKO EMAITZA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>20</b>	<b>19. Etekinen gaineko zergak</b>	-	-
	<b>A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
	<b>A.5) EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

# ALDAKETEN EGOERA ONDARE GARBIAN

## 2024KO EKAINAREN 30EKO DATAKOA

### A) EZAGUTUTAKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA 2024 ETA 2023KO EKAINAREN 30EKO DATAKOAK

	2024.06.30	2023.06.30
<b>A. Galdu-irabazien kontuen emaitza</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak		
III. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	263.653,61	567.662,75
<b>B. Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak, guztira (I+II+III+IV+V)</b>	<b>263.653,61</b>	<b>567.662,75</b>
Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak		
VIII. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	-182.200,95	-116.632,39
<b>C. Galdu-irabazien kontura egindako transferentziak, guztira (VI+VII+VIII+IX)</b>	<b>-182.200,95</b>	<b>-116.632,39</b>
<b>EZAGUTUTAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, GUZTIRA (A+B+C)</b>	<b>81.452,66</b>	<b>451.030,36</b>

### B) ONDARE GARBIAN EGINDAKO ALDAKETEN EGOERA OSOA 2024 ETA 2023KO EKAINAREN 30EKOAK

	Funts soziala		Kapitalizazio erreserba	Aurreko ekitaldien emaitzak	Ekitaldiaren emaitza	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	GUZTIRA
	Eskrituratua	Exijitu gabea					
<b>A. AZKEN SALDOA 22/06/30EAN</b>	<b>0,00</b>	<b>109.386.743,71</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>0,00</b>	<b>-10.624.657,27</b>	<b>850.578,71</b>	<b>103.403.624,71</b>
I. Irizpideak aldatzeagatiko doikuntzak 22/06/30ean eta aurrekoak	-	-	-	-	-	-	-
II. Akatsengatiko doikuntzak 22/06/30ean eta aurrekoak	-	-	-	-	-	-	-
<b>B. SALDO DOITUA, 22/07/01 ALDIAREN HASIERA</b>	<b>0,00</b>	<b>109.386.743,71</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>-10.624.657,27</b>	<b>0,00</b>	<b>850.578,71</b>	<b>103.403.624,71</b>
I. Ezagututako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	-	-	0,00	451.030,36	451.030,36
II. Eragiketak bazkide eta jabeekin	-	1.538.912,00	-	-	-	-	1.538.912,00
1. Kapital-gehikuntzak	-	1.538.912,00	-	-	-	-	1.538.912,00
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-	-10.624.657,27	-	10.624.657,27	-	-	-
<b>C. SALDOA, 23/06/30 URTEAREN AMAIERA</b>	<b>0,00</b>	<b>100.300.998,44</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>1.301.609,07</b>	<b>105.393.567,07</b>
I. Irizpideak aldatzeagatiko doikuntzak 23/06/30ean	-	-	-	-	-	-	-
II. Akatsengatiko doikuntzak 23/06/30ean	-	-	-	-	-	-	-
<b>D. SALDO DOITUA, 23/07/01 ALDIAREN HASIERA</b>	<b>0,00</b>	<b>100.300.998,44</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>1.301.609,07</b>	<b>105.393.567,07</b>
I. Ezagututako diru-sarrerak eta gastuak, guztira	-	-	-	-	0,00	81.452,66	81.452,66
II. Eragiketak bazkide eta jabeekin	-	247.450,00	-	-	-	-	247.450,00
1. Kapital-gehikuntzak	-	247.450,00	-	-	-	-	247.450,00
III. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk	-	0,00	-	0,00	-	-	-
<b>E. SALDOA, 24/06/30 ALDIAREN AMAIERA</b>	<b>0,00</b>	<b>100.548.448,44</b>	<b>3.790.959,56</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>1.383.061,73</b>	<b>105.722.469,73</b>

# ESKUDIRUTAKO FLUXUEN KONTUA

## 2024KO EKAINAREN 30EKO DATAKOA

	2024.06.30	2023.06.30
<b>A) USTIAPEN JARDUEREN DIRU-FLUXUA</b>		
<b>1. Ekitaldiaren emaitza zergen aurretik</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>2. Emaitzaren doikuntzak</b>	<b>-13.346.417,66</b>	<b>-4.329.659,62</b>
a) Ibilgetuaren amortizazioa	7.170.319,22	17.001.336,48
b) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak	838.192,71	1.089.495,73
c) Horniduren aldaketa	-14.164.856,32	-21.515.907,34
d) Diru-laguntzen egozpena	-182.200,95	-116.632,39
e) Ibilgetuaren baja eta besterentzeengatiko emaitzak	-6.611.500,00	-152.387,05
g) Diru-laguntza finantzarioak	-521.105,03	-761.624,45
h) Finantza-gastuak	124.732,71	126.059,40
<b>3. Kapital arruntaren aldaketak</b>	<b>14.688.624,58</b>	<b>28.589.182,00</b>
a) Izakinak	54.389,46	1.371.220,98
b) Zordunak eta kobratu beharreko beste gastu batzuk	-9.450.397,58	-4.654.115,47
c) Beste aktibo arrunt batzuk	11.384.133,62	45.315.713,36
d) Hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk	10.605.052,42	-13.760.156,63
e) Beste pasibo arrunt batzuk	2.095.446,66	862.388,30
f) Arruntak ez diren beste aktibo eta pasibo batzuk	0,00	-545.868,54
<b>4. Ustiapen-jardueretako beste diru-fluxu batzuk</b>	<b>396.372,32</b>	<b>635.565,05</b>
a) Interesen ordainketak	-124.732,71	-126.059,40
c) Interesen kobrantzak	521.105,03	761.624,45
<b>5. Ustiapen-jardueren diru-fluxuak (+/-1+/-2+/-3+/-4)</b>	<b>1.738.579,24</b>	<b>24.895.087,43</b>
<b>B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK</b>		
<b>6. Inbertsioengatiko ordainketak</b>	<b>-23.101.922,79</b>	<b>-3.622.611,38</b>
b) Ibilgetu ukiezina	-20.315.681,15	-677.170,37
c) Ibilgetu materiala	-2.699.018,35	-2.945.441,01
e) Bestelako finantza-aktiboak	-87.223,29	0,00
<b>7. Desinbertsioengatiko kobrantzak</b>	<b>6.791.098,02</b>	<b>186.028,78</b>
b) Ibilgetu ukiezina	6.611.500,00	0,00
c) Ibilgetu materiala	0,00	84.742,88
e) Bestelako finantza-aktiboak	179.598,02	101.285,90
<b>8. Inbertsio-jardueren diru-fluxuak (7-6)</b>	<b>-16.310.824,77</b>	<b>-3.436.582,60</b>
<b>C) FINANTZA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK</b>		
<b>9. Ondare-tresnengatiko kobrantzak eta ordainketak</b>	<b>511.103,61</b>	<b>2.106.574,75</b>
a) Ondare-tresnen jaulkipena	247.450,00	1.538.912,00
e) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	263.653,61	567.662,75
<b>12. Finantzaketa-jardueretako diru-fluxuak (+/-9+/-10-11)</b>	<b>511.103,61</b>	<b>2.106.574,75</b>
<b>D) TRUKE-TIPOEN ALDAKETEN ERAGINA</b>		
<b>E) ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/GUTXITZE GARBIA (+/-5+/-8+/-12+/-D)</b>		
Eskudirua edo baliokidea ekitaldiaren hasieran	36.678.372,52	13.113.292,94
Eskudirua eta baliokidea ekitaldiaren amaieran	22.617.230,60	36.678.372,52

# URTEKO DIRU-KONTUEN TXOSTENA

2024EKO EKAINAREN 30EAN

## 1. OHARRA ERAKUNDEAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Athletic Club (aurrerantzean Athletic edo Kluba), G48 074 264 IFK duena, Elkartea pribatua da, dirua irabazteko asmorik gabekoa, Bizkaiko Futbol Federazioari atxikia, 1898. urtean eratu zena, eta haren xede soziala kirol jarduera mota oro sustatzea eta egitea da, batez ere futbolean.

Helbide soziala Bilbon dago, Mazarredo Zumarkaleko 23an (Ibaigane Jauregia).

Honako hauek arautzen dute Kluba: Euskadiko kirol-legeria, kirol-klub eta kirol-elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, indarrean dauden gainerako lege-xedapenak, 2022ko maiatzaren 23ko Ezohiko Batzar Nagusiak onartutako Estatutuak, bere Erregelamendu zehatzak eta bere organoek bali osoz hartutako erabakiak.

Klubaren subiranotasuna eta gobernua bazkideei dagokie, Batzar Nagusiaren bitartez. Presidentea eta Zuzendaritza-Batzordea dira Klubaren ordezkartza- eta administrazio- organoak, hurrenez hurren.

2024ko ekainaren 30ean, Bazkideen Erroldan 43.649 kide daude (43.558 kide aurreko ekitaldian).

2024 eta 2023ko ekainaren 30ean, Merkataritza Kodeko 42. artikulua daukan edukiaren arabera, Kluba ez dago behartuta urteko kontu finkatuak egiteko, eta ez du erabakitzeke batasunik osatzen Espainian helbideratutako beste sozietate batzuekin Urteko Kontuak Prestatzeko Araudiaren 13. Arauaren arabera.

Klubaren txanpon baliagarria Euroa da.

## 2. OHARRA AURKEZPEN OINARRIAK

### 2.1. FINANTZA-NFORMAZIOAREN ARAUDI EREMUA

Urteko kontu hauek Zuzendaritza-Batzordeak egin ditu, Klubean aplikagarri diren finantza-informazioaren araudi eremuaren arabera. Honakoetan zehazten da:

- 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren egokitzapen sektorialak.
- Kirol Sozietate Anonimoei egokitutako Kontabilitate Plan Orokorra, Kontabilitate Plan Orokor Berriaren aurka ez doan guztia.
- Abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretuaren eta urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuaren bidez egindako aldaketak.
- Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak onartutako nahitaez bete beharreko arauak.
- Aplikatu beharreko Espainiako gainerako kontabilitate-arauak.

### 2.2. OINARRIAK

Honekin batera doazen urteko kontuak Klubaren Zuzendaritza-Batzordeak prestatu ditu, indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako arauetan oinarrituta, 2024ko ekainaren 30ean amaitu

zen urteko ekitaldiari dagokion ondarearen, finantza-egoeraren, erakundearen emaitzen, ondare garbian egondako aldaketaren eta esku-dirutako fluxuen benetako irudia erakusteko asmoz.

### 2.3. APLIKATUTAKO KONTABILITATE-PRINTZPIOAK

Urteko kontuak egiteko, orokorrean onartzen diren kontabilitateko printzipioak bete dira. Ez dago nahitaezko kontabilitate-printzipiorik, haren eragin esanguratsua izanik, aplikatzeari utzi zaionik.

2024ko ekainaren 30ean amaitutako ekitaldiko urteko kontuak bazkide konpromisarioen Batzar Nagusiak onartzeke daude. Hala ere, Zuzendaritza-Batzordea, Batzar Nagusiak aldaketarik gabe onartuko dituelakoan dago. 2022/2023ko jardueraren urteko kontuak 2023ko urriaren 31n onartu zituen Batzar Nagusiak.

### 2.4. BALORAZIOAREN ALDERDI KRITIKOAK ETA ZALANTZAK

a) Kontabilitateko balioak zehazteko egin diren zenbatespenak, besteak beste, ondoko hauei buruzkoak dira:

- Aktibo ukiezinen balioa
- Besteekiko zorrak kobratzeko arriskuak
- Izakinen narriadura

- Arriskuen eta gastuen hornidurak
- Finantza-inbertsioak

Zenbatespen hauek urteko kontuak egitean erabiltzeko moduan zegoen informazio hobereanean oinarritu dira; informazio hori ekitaldia amaitzeko datan egon daitekeen egoeraren zalantzari buruzkoa da eta aldian-aldian berrikusten da. Dena den, litekeena da, hala aldizkako berrikuspen horiek nola etorkizuneko gertaerek hurrengo ekitaldietan zenbatespen horiek aldaraztea. Horrela bada, aldaketen eraginak ekitaldi horretako eta hurrengoetako galera eta irabazien kontuan modu prospektiboan erregistratuko da. Zehazki, kostu bidezko horniduren zenbatespenei dagokienez, bi urteko epea hartu da kontuan 2023/2024 denboraldi honetan (aurrekoan bezala).

Kluba normaltasunez jarduten segitzeko duen gaitasunaren gaineko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei dagokienez, Zuzendaritza-Batzordeak ez du ziurgabetasun garrantzitsuen berri, beraz, urteko kontu hauek jarduneko enpresaren printzipioaren arabera egin dira.

## 2.5. INFORMAZIOAREN ALDERAKETA

Aurreko denboraldian, Athletic Clubek akordioa lortu zuen J. Carter Sporting Club Limited (CASTORE) kirol-markaren babeslearekin, 2023/2024 denboralditik aurrerako ondorioekin.

Kontratu horretako klausulen arabera, CASTORE empresa babesle gisa ez ezik, Athletic Clubeko denda kudeatzeaz ere ardura-tzen da, ordura arte Klubak berak zuzenean ustiatzen baitzuten. Era berean, 2023/2024 denboraldiko apirilean, Kluba Errege Koparen txapeldun izan zen. Gertakari hauek kontuan hartu behar dira bi ekitaldietako urteko kontuen konparagarritasunean.

Aurreko paragrafoan aipatutako gertaerek izan ditzaketen ondorioak alde batera utzita, 2024ko ekainaren 30ean amaitutako ekitaldiari dagozkion kontuek ez dute arazorik sortzen 2023ko ekainaren 30ean itxitako ekitaldikoekin konparatzeko.

## 2.6. ZENBAIT ATALETAN JASOTAKO OSAGAIK

Ez dago balantzearen bi sail edo gehiagotan erregistratuta dagoen ondare-osagairik.

## 2.7. KONTABILITATE-IRIZPIDEEN ALDAKETAK

2023/2024 ekitaldiaren urteko kontuak prestatzeko erabili diren irizpideek ez dute aldaketarik izan, aurreko ekitaldiaren kontuak egiteko erabili direnekin alderatuta.

## 2.8. AKATSEN ZUZENKETA

Zuzendaritza-Batzordeak dakiela, ez dago kontabilitateko akats esanguratsurik aribideko ekitaldian eragina duenik edo hurrengo ekitaldietan eragina izan dezakeenik.

# 3. OHARRA EMAITZEN APLIKAZIOA

Ekitaldiaren emaitza, 16. Oharrean aipatutako aplikazioaren ondoren, 0 eurokoa da.

14. Oharrean adierazten denez, denboraldi honetan Klubaren ondarea 247.450,00 euro handitu da

(1.538.312,00 euro aurreko ekitaldian), bazkide berrien sarrera-kuotei dagokiena.

Era berean, Ohar horretan aurreko ekitaldiko emaitzaren aplikazioa erakusten da.

# 4. OHARRA BALORAZIO ARAUAK

## 4.1. IBILGETU UKIEZINA

### 4.1.1. Jokalariak eskuratzeko eskubideak

Kontu honetan beste klubetako jokalarien federazio-eskubideak erosteko duen kostua jasotzen da, eta hala badagokio, zenbait kirol ekintza lortzearen arabera ordainketa aldakorrak.

Linealki amortizatzen da kontratuak duen iraupenaren arabera. Kontratuaren hasierako epea bukatu aurretik berritzen baldin bada, berriztapen urtean amortizatzeke dagoen saldoa linealki amortizatzen da itundutako kontratu berriaren iraunaldian.

### 4.1.2. Aplikazio informatikoak

Programa informatikoetan egindako inbertsioa jasotzen da, kostaprezioan. Aplikatu den amortizazio linealeko koefiziente %20koa da.

Ez dago bizialdi mugagabea duen ibilgetu ukiezinik.

## 4.2. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materiala eguneratutako kostuaren prezioan balioztatua dago, 1/79 Legearen, 9/83 Legearen, 11/90 Foru Arauaren eta 6/96 Foru Arauaren arabera.

Ibilgetu materialeko ondasunak berrizatzeko, handitzeko edo hobetzeko kostuak aktiboan eranstean dira, ondasunaren balio handiena bezala, bakar-bakarrik beraien gaitasuna, produktibitatea edo bizialdiaren luzapena ekartzen badute. Mantentze eta zaintzeko gastuak ekitaldi bereko emaitzetan zordundu dira.

Amortizazioari aplikatutako hornidurak modu linealaren arabera zenbatetsi dira, balio eguneratuen gainean, ondoko portzentaje hauen arabera, ondasun eta ekipo bakoitzaren izaerekin bat etorriz:

	%
Estadioak, kirol-pabiloiak eta eraikuntzak	2tik 5era
Makineria eta instalazioak	10etik 20ra
Altzariak	15tik 20ra
Informatika-tresneria	20
Garraio osagaiak. Ibilgailuak	20

Ez dago bizialdi mugagabea duen ibilgetu materialik.

Ez dago higiezin-inbertsiorik.

### 4.3. AKTIBO EZ-FINANTZARIOEN BALIO-NARRIADURA

Gutxienez epea edo ekitaldiaren itxieran, Klubak ebaluatzen du aktibo ez arruntaren bat narriatuta egon daitekeenaren adierazgarriak edo nabaritasunak badaude. Nabaritasunak egonez gero, berreskuragarriak diren zenbatekoak balioztatzen dira eta dagokion balorazio-zuzenketa erregistratzen da.

Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak eta haien itzulketa galdu-irabazien kontuan zenbatzen dira. Narriaduragatik balio-zuzenketak aldatu egiten dira horiek agertzeko eragin zituzten baldintzak jada ez daudenean. Balio-narriadura alde aurretik ezagutu ezean agertuko litzatekeen aktiboaren kontabilitate-balioa mugatzen du narriaduraren itzulketak.

### 4.4. FINANTZA-ERRENTAMENDUAK

Kontratuaren xede den aktiboaren jabetzari datxezkion arrisku eta etekin guztiak funtsean transferitzen direnak dira. Bestela, kontratuak errentamendu operatiboetan sailkatzen dira.

2024 eta 2023ko ekainaren 30ean, Athletic Clubek ez dauka finantza-errentamendurik indarrean.

### 4.5. FINANTZA-AKTIBOAK

Finantza-aktibo bat da edozein aktibo, baldin eta eskudirua edo beste enpresa baten ondare-tresna bada, edo eskudirua edo beste finantza-aktibo bat (zor-tresna bat) jasotzeko edo hirugarrenekin aktibo edo pasibo finantzarioak trukatzeko kontratu-eskubidea badakar, aldeko baldintzetan.

Finantza-aktiboak balioesteko, kategoria hauetakoren batean sartuko dira:

- Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako finantza-aktiboak
- Kostu amortizatuko finantza-aktiboak
- Ondare garbiaren aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktiboak
- Kostuko finantza-aktiboak

Klubak dituen finantza-aktiboak honako kategoria hauei dagozkie:

#### 4.5.1 Galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako finantza-aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartu beharko da, gainerako kategorietakoren batean sailkatu behar denean izan ezik. Negoziatzeko mantendutako finantza-aktiboak kategoria honetan sartuko dira nahitaez.

#### Hasierako balioespena

Kategoria honetan sartutako finantza-aktiboak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa. Zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

#### Geroko balioespena

Hasierako azterketa egin ondoren, enpresak kategoria honetako finantza-aktiboak arrazoizko balioan balioetsiko ditu, galdu-irabazien kontuan aldaketak eginez.

#### 4.5.2. Kostu amortizatuko aktiboak

Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartuko da, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta dagoenean ere, baldin eta enpresak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak sortzen badituzte; fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta geratzen den printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez dira.

Ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko printzipalaren eta interesaren kobrantzak baino ez diren kontratuzko diru-fluxuak mailegu arrunt edo komun izaera duen akordio bati atxikita daude, eragiketa zero interes-tasan edo merkatutik beherako interes-tasan adosteari kalterik egin gabe.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialetako kredituak eta eragiketa ez-komertzialetako kredituak:

- Merkataritza-eragiketengatiko kredituak: kobratze geroratua duten enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean sortzen diren finantza-aktiboak dira.
- Eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak: ondare-tresnak edo deribatutako ez diren baina jatorri komertzialik ez duten finantza-aktiboak dira, zenbateko jakin edo zehazgarriko kobrantzak dituztenak, enpresak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak.

#### Hasierako balioespena

Kategoria honetan sailkatutako finantza-aktiboak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hots, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak gehituta.

Hala ere, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean, balio nominalean balioetsi ahal izango dira urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eragiketa komertzialetako kredituak, kontratuzko interes-tasa esplizitua ez dutenak, bai eta epe laburrean jasotzea espero





den pertsonalarentzako kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnei buruz galdatutako ordainketak ere.

### **Geroko balioespena**

Kategoria honetako finantza-aktiboak kostu amortizatuan balioetsiko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten kredituak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera beren balio nominalean baloratzen badira, zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira, narriatu ez badira.

Finantza-aktibo baten kontratuko diru-fluxuak jaulkitzailearen zailtasun finantzarioen ondorioz aldatzen direnean, enpresak balio-narriaduragatiko galera kontabilizatu behar den aztertuko du.

### **Balio-narriadura**

Gutxienez ekitaldi-itxieran, beharrezkoak diren balioespen-zuzenketak egin behar dira, baldin eta objektiboki ikusten bada finantza-aktibo baten edo antzeko arrisku-ezaugarriak dituen finantza-aktibo multzo baten balioa narriatu egin dela, hasierako kontabilizazioaren ondoren izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta etorkizuneko diru-fluxu estimatuak murriztu edo atzeratu egin direla, zordunaren kaudimengabeziaren ondorioz.

### **4.5.3. Kostuko finantza-aktiboak**

Taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondarean egindako inbertsioak eta beste kategoria batzuetan sartzen ez diren gainerako ondare-tresnak kostuan balioesten dira (emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak), harpidetzeko lehentasunezko eskubideen eta antzekoen zenbatekoa barne, eta, hala badagokio, lehentasunezko harpidetza-eskubideen eta antzekoen salmentan lortutako zenbatekoa kenduta.

### **Balio-narriadura**

Epigrafe honetan sailkatutako inbertsio baten liburu-balioa ezin izango dela berreskuratu objektiboki ikusten bada, narriaduragatiko balioespen-zuzenketak galdu-irabazien kontuan gastu gisa hornituko dira. Ondorio horietarako (berreskura daitekeen zenbatekoaren ebidentzia hoberik ezean), kontuan hartuko da erakunde partaidetua- ren ondare garbia, balioespen-datan partaidearen balantzean identifika daitezkeen elementuei dagozkien isileko plusbalioen bidez zuzendua, edo taldeko enpresak, talde anitzekoak edo elkartuak ez diren enpresen kasuan kotizaziorako onartuak, aktiboaren kotizazio-balioa erabiliko da, baldin eta behar bezain fidagarria bada.

Gerora, narriaduragatiko galera gutxitzen bada, itzulketa sarrera gisa erregistratzen da galdu-irabazien kontuan, balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz onartuko litzatekeen inbertsioaren liburu-balioaren mugarekin.

### **4.5.4. Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak**

Aktibo horiek erosi ondoren sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Erosketaren aurretik sortutako eta mugaeguneratu gabeko interes esplitzuek inbertsioaren kontabilitate-balioa murrizten dute.

### **4.5.5. Finantza-aktiboek baxerregistratzeko irizpideak**

Kontabilitatearen kontzeptu-esparruan adierazitakoaren arabera, finantza-aktiboek transferentziak aztertzean, errealitate ekonomikoari erreparatu behar zaio, eta ez forma juridikoari soilik, ezta kontratuen izen-dapenei ere.

Enpresak baxer emango dio finantza-aktibo bati, edo haren zati bati, finantza-aktiboaren diru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak iraungitzen direnean edo lagatzen direnean, eta beharrezkoa izango da jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak funtsean transferitu izana. Baldintza horiek ebaluatuko dira lagapenaren aurretik eta ondoren enpresak transferitutako aktiboaren diru-fluxu garbien zenbatekoetan eta egutegian izandako aldaketekin alderatuta. Finantza-aktiboaren jabetzari datxezkion arriskuak eta onurak funtsean laga direla ulertuko da, aldaketa horren eraginpean egoteak esanguratsua izateari uzten dionean finantza-aktiboarekin lortutako etorkizuneko diru-fluxu garbien balio eguneratuaren aldaketa osoarekin alderatuta (adibidez, aktiboek salmenta irmoak, enpresak inolako kreditu- edo interes-arriskurik atxikitzen ez duten 'factoring' eragiketen kreditu komertzialen lagapenak, arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten finantza-aktiboek salmentak eta finantza-aktiboek titulizazioak, enpresa lagatzaileak mendeko finantzaketarik atxikitzen ez badu, inolako bermerik ematen ez badu edo bestelako arriskuren bat hartzen ez badu).

### **4.5.6. Kostu amortizatuko finantza-aktiboak arrazoizko balioak finantza-aktiboek kategoriara baxerregistratzea, galdu-irabazien bitartez eta alderantziz**

Erakunde batek finantza-aktibo bat baxerregistratzen badu kostu amortizatuko aktiboek kategoriatik arrazoizko balioaren kategoriara, galdu-irabazien bitartez, aktibo horren arrazoizko balioa baxerregistratzen datan neurtuko da. Finantza-aktiboaren aurretiko kostu amortizatuaren eta arrazoizko balioaren arteko diferentziagatik sortzen den edozein galera edo irabazi galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko da.

Aitzitik, erakunde batek finantza-aktibo bat arrazoizko balioak aktiboek kategoriatik kostu amortizatuko aktiboek kategoriara baxerregistratzen badu galdu-irabazien bitartez, baxerregistratzen datan duen arrazoizko balioa bere liburu-balio berria izango da.

## **4.6. FINANTZA-PASIBOAK**

Jaulkitako, egindako edo bere gain hartutako finantza-tresnak finantza-pasibo gisa sailkatuko dira, osorik edo zati batean, baldin eta, errealitate ekonomikoaren arabera, enpresari kontratu-betebehar bat ezartzen badiote, zuzena edo zeharkakoa, eskudirua edo beste finantza-aktibo bat entregatzeko, edo hirugarrenekin finantza-aktibo edo -pasiboak trukatzeko baldintza potentzialki kaltegarrietan, hala nola jaulkitzaileak nahitaez berrerostea aurreikusten duen finantza-tresna bat, edo edukitzaileari eskubidea ematen diona data jakin batean zenbateko jakin edo mugagarri batean erreskatea eskatzeko, edo aurrez zehaztutako ordainsaria jasotzeko, betiere etekin banagarriak badaude, hala nola zenbait akzio erreskatagarri eta botorik gabeko akzio edo partaidetza.

Finantza-pasiboak balioesteko, kategoria hauetakoren batean sartuko dira:

- Finantza-pasiboak kostu amortizatuan
- Arrazoizko balioan baloratutako finantza-pasiboak galdu-irabazien kontuaren aldaketak eginez



Horrez gain, aktiboak transferitzearen ondorioz sortutako finantza-pasiboak, enpresak arriskuak eta onurak laga ez baditu edo funtsean atxiki ez baditu, lagatako aktiboarekin bat etorri baloratuko dira.

Klubak dituen finantza-pasiboak kategoria honi dagozkio:

#### 4.6.1. Finantza-pasiboak kostu amortizatuan

Klubak kategoria honetan sailkatuko ditu finantza-pasibo guztiak, salbu eta galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratu behar direnean, edo arau honetan aurreikusitako salbuespenetako bat denean.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialen ondoriozko zorrak eta eragiketa ez-komertzialen ondoriozkoak:

- Merkataritza-eragiketengatik zorrak: enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erosten sortzen diren finantza-pasiboak dira, ordainketa geroratua dutenak.
- Eragiketa ez-komertzialengatik zorrak: tresna deribatuak ez izan arren, merkatarizatik ez datozen finantza-pasiboak dira, enpresak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozenak.
- Mailegu arrunt edo komun baten ezaugarriak dituzten partaidetza-maileguak ere kategoria honetan sartuko dira, eragiketa zero inter-tasan edo merkatutik behera adostearen kalterik gabe.

#### Hasierako balioespena

Kategoria honetan sartutako finantza-pasiboak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuekin doituta.

Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketengatik zorrak eta hirugarrenek partaidetzei buruz galdutako ordainketak, zeinen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita, beren balio nominalaren balioetsi ahal izango dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

#### Geroko balioespena

Kategoria honetako finantza-pasiboak kostu amortizatuan balioetsiko dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Hala ere, epemuga urtebete edo laburragoa duten zorrak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera beren balio nominalaren arabera baloratzen badira, zenbateko horren arabera baloratzen jarraituko dira.

#### Finantza-pasiboen baja

Klubak baja emango dio finantza-pasibo bati, edo haren zati bati, obligazioa iraungiz gero; hau da, ordaindu, kitatu edo iraungi denean. Eskuratzen dituen finantza-pasibo propioei ere baja emango die, etorkizunean birkokatzeke asmoz bada ere.

Mailegu-emale baten eta mailegu-hartzaile baten artean zor-tresnak trukutzen badira, jatorrizko finantza-pasiboaren baja erregistratuko da eta sortzen den finantza-pasibo berria aintzatetsiko da, betiere baldintza funtsean desberdinak badituzte. Era berean, finantza-pasibo baten egungo baldintzen funtsezko aldaketa erregistratuko da.

Baja eman zaion finantza-pasiboaren edo horren zatiaren liburu-balioaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko diferentzia, sortzen diren kostuak edo komisioak barne, non jasoko baita, halaber, eskudirua edo onartutako pasiboa ez den lagatako edozein aktibo, gertatzen den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan zenbatuko da.

#### 4.7. KIROL-MATERIALAREN ETA BESTELAKO SALMENTA-GAIEN IZAKINAK DENDETAN

Batez besteko kostaprezioan baloratzen dira edo merkatuko prezioan, txikiagoa bada.

Klubak zuzenketa baloratiboak egiten ditu izakinetan bihurtarri den balio garbia kontabilitatearen balioa baino gutxiago denean. Bereziki, bi denboralditik gorako antzinatasuneko izakinetan kostua ez dela berreskuratuko kontuan hartzen da. Antzinatasun-denboraldi batekoak %50ean narriatzen dira. 2022/2023 ekitaldian, babeslea aldatu zenez, harekin lotutako izakinak %100ean hondatu ziren.

Aurtengo denboraldia amaitzean, hornidura hori 837.378,31 eurokoa da (727.063,18 eurokoa aurreko ekitaldian).

#### 4.8. TRANSAKZIOAK ATZERRIKO MONETAN

Ondasun eta zerbitzuen atzerri-monetako eskurapen arruntak eta kontzeptu horrengatik hornitzaileei ordaindu beharreko saldo korrelatiboak eragiketa egiten den unean kalkulaturako truke-tasaren arabera balioesten dira. Ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen truke-tasa aplikatu ahal izateko egin beharko liratekeen balio-zuzenketak ez dira esanguratsuak.

#### 4.9. SOZIJATEEN GAINEKO ZERGA

Zergagatik gastua kalkulatzeko, haren eta zerga-emaitzaren arteko diferentzia iraunkorren ondorioz aldatutako kontabilitate-emaitza hartzen da kontuan. Balioespen-zuhurtasunaren printzipioa aplikatuz, ekitaldi batean sortutako galerengatik konpentsatzeke dauden kreditu fiskalak, hobariak eta kenkariak ez dira aktiboan sartzen, baizik eta benetan aplikatzen diren ekitaldian kontzeptu horrengatik erregistratutako gastuaren zenbatekoa murrizten dute.

Zerga geroratua (emaitza fiskalean kontabilitate-emaitzaren aldean izandako gutxipenen emaitza) edo aurreratua (emaitza fiskalean kontabilitate-emaitzaren aldean izandako gehikuntzen emaitza), ondorio fiskaletarako aplikatzen diren periodifikazio-irizpide desberdinak kontabilitate ondorioetarako aplikatzen direnetatik ezberdinak izateagatik sortua, dagozkien araudien arabera, aktiboko (zerga aurreratua) edo pasiboko (zerga geroratua) kontuetan erregistratzen da.

#### 4.10. DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

Sortzapenaren irizpidearen arabera erregistratuko dira. Oro har, adostutako prezioaren arabera baloratu egiten dira, prezioaren deskontuak, beherapenak edo enpresak ematen dituen antzeko partidak eta kredituen nominalari erantsitako interesak kendu ondoren. Hala ere, gehienez urtebeteko epemuga daukaten merkataritza-kredituei erantsitako interesak, kontratuko interes tasa ez badute, salmenta prezioari gehituko zaizkio, esku-dirutako fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez bada.



#### **4.11. HORNIDURAK ETA KONTINGENTZIAK**

##### **Langileekiko konpromisoa**

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Klubak kalte-ordainak ordaindu behar dizkie baldintza jakin batzuetan lan-harremana bertan behera uzten duten langileei. Beraz, arrazoizko kuantifikazioa izan dezaketen kaleratzeagatiko kalte-ordainak erabakia hartu den ekitaldiko gastu gisa kontabilizatzen dira.

Indarrean dagoen lan-hitzarmenak ez du aurreikusten langileen aldeko pentsio osagarriak. Jokalarien antzinatasun sariei dagozkien pasiborik ez dago, hauek jokalaria bakoitzarekin bakarka negoziatzen diren ordainsarien barne daudelako. Langileei dagozkien enplegu-osteko prestazio hauek bere sortzapenaren arabera erregistratzen dira.

##### **Beste hornidura eta kontingentzia batzuk**

Hornidurak pasiboak dira, kontabilitatearen kontzeptu-esparruan jasotako kontabilitatea erregistratzeko edo aintzatesteko definizioa eta irizpideak betetzen badituzte, eta zenbateko zehatzari eta/edo ezereztuko diren datari dagokienez zehaztugabeak badira.

Bestalde, kontingentzietan, kontabilitate-egoerak ixteko unean ez dago beharrik edo eskubide ziurrik, baina etorkizuneko gertakari jakin batzuk gertatuta, gerta daiteke erakunde batentzat beharrak edo eskubideak agertzea iraganeko gertaera baten ondorioz.

#### **4.12. INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUERAK**

Oro har, Klubaren jarduerak ez dute eragin negatiborik ingurumenean. Horrenbestez, ez dago kostu edo inbertsio esanguratsurik balizko eragin horiek leuntzeko.

#### **4.13. LANGILE-GASTUAK**

##### **a) Jokalariak trebatzeko gastuak**

Gastu hauek egiten diren ekitaldian erregistratzen dira.

##### **b) Jokalarien zerbitzuak kontratatze modalitateak**

Jokalarien zerbitzuak kirolari profesionalen kontratuen bidez kontratatzen dira, 1006/1985 Errege Dekretuan araututakoaren arabera. Jokalariekin ez da irudi-kontraturik sinatu.

#### **4.14. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA ONDAREAK**

Kapitaleko diru-laguntzak egoera balantzearen pasiboan ageri dira, Ondare Garbian emandako jatorrizko diru-zenbatekoarekin, diru-sarrera gisa egotzitako zenbatekoak kenduta. Itzulezinak diren diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak emaitzei egozterakoan, haien helburua izango da kontuan. Zehazki:

a) Gastu zehatzak finantzatzeko ematen direnean, diru-sarrera gisa egotziko dira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldi berean.

b) Ibilgetu materialeko aktiboak eskuratzeko ematen direnean, ekitaldiko diru-sarrera gisa egotziko dira, diru laguntza horiekin finantzatutako inbertsioen balio-galeraren proportzio berean.

#### **4.15. LOTURA DUTEN ALDEEN ARTEKO TRANSAKZIOAK**

Oro har, lotura duten alderdien arteko eragiketak, Klubaren ohiko trafikoarekin zerikusia dutenak, merkatuko baldintza arruntetan egiten dira, eta aurrez zehaztutako balorazio-arauen arabera erregis-

tratzen dira. Hala badagokio, adostutako prezioa eta arrazoizko balioa desberdinak badira, eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratuko da aldea. Geroko balioespena kasuan kasuko arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.

#### **4.16. INGURUMEN-IZAERAKO ONDARE-OSAGAIAK**

Kutsatutako lekuak garbitzeko eta berreskuratzeko, hondakinak ezabatzeko eta ingurumen-legeria betetzearen ondoriozko beste gastu batzuk gertatzen diren ekitaldiko gastu gisa erregistratzen dira, Klubaren ondarean modu iraunkorrean erabiltzekoak diren osagaiak erostearen kostuari dagozkionak salbu. Azken hauek ibilgetu materialaren goiburukoan zenbatuko dira, eta aurreko 4.2 Oharrean adierazitako irizpide berberekin amortizatzen dira.

2024ko eta 2023ko ekainaren 30ean, Klubak ez du horrelako gastu esanguratsurik egin, eta ez du horrelako ibilgetu materialik erregistratuta balantzearen aktiboan.



## 5. OHARRA

### KIROL-IBILGETU UKIEZINA

5.1. Kontu honetako saldoa jokalariai kontratatze kostuak osatzen du, bakoitzaren metatutako amortizazioa kenduta, honako xehetasunaren arabera:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2024.06.30ean
<b>KOSTUA</b>				
Jokalariai eskuratzeko eskubideak	82.450.964,32	19.810.013,70	-35.628.541,32	66.632.436,70
	82.450.964,32	19.810.013,70	-35.628.541,32	66.632.436,70
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>				
Jokalariai eskuratzeko eskubideak	76.695.190,81	2.899.012,99	-35.628.541,32	43.965.662,48
	76.695.190,81	2.899.012,99	-35.628.541,32	43.965.662,48
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>5.755.773,51</b>			<b>22.666.774,22</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2023.06.30ean
<b>KOSTUA</b>				
Jokalariai eskuratzeko eskubideak	82.037.664,32	413.300,00	-	82.450.964,32
	82.037.664,32	413.300,00	-	82.450.964,32
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>				
Jokalariai eskuratzeko eskubideak	64.609.980,93	12.085.209,88	-	76.695.190,81
	64.609.980,93	12.085.209,88	-	76.695.190,81
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>17.427.683,39</b>			<b>5.755.773,51</b>

5.2. Ekitaldiaren gehikuntzak, besteak beste Alvaro Djalo, Adama Boiro, Elijah Gift eta Igor Oyono jokalariei dagozkie nagusiki.

5.3. Jokalarien eskuratzeko eskubideen xehetasuna jarraian erakusten da:

Jokalaria	Kostua	Hasierako kontratuaren iraupena	Garbia	Hondar-bizitza 24/06/30ean
Oscar de Marcos	300.000,00	4	-	-
Raul Garcia	10.000.000,00	4	-	-
Yuri Berchiche	24.750.000,00	4	1.546.875,00	1
Nicolas Serrano	279.123,00	6	-	-
Oihan Sancet	300.000,00	5	-	-
Alex Berenguer	11.125.000,00	4	1.875.000,00	3
Elijah Gift	1.500.000,00	4	1.200.000,00	3
Alvaro Djalo	15.000.000,00	5	15.000.000,00	5
Adama Boiro	2.000.000,00	5,5	1.818.181,82	5
Igor Oyono	1.123.013,70	6,5	1.036.628,03	6
Beste batzuk	255.300,00	-	190.089,37	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>66.632.436,70</b>		<b>22.666.774,22</b>	

5.4. Guztiz amortizatutako kirol ibilgetu ukiezina 2024ko ekainaren 30ean, 10.822.423,00 eurokoa da (45.931.841,32 eurokoa aurreko ekitaldian).

5.5. Ekitaldiko erretiroak ekitaldian lantaldean egon ez diren jokalarien eskuratzeko eskubideei dagozkie.

## 6. OHARRA

### BESTELAKO IBILGETU UKIEZINA

**6.1.** Kontu honetako saldoa aplikazio informatikoen kostuek, jabetza artistikoaren kostuek eta ISO ziurtagiria jasotzearen kostuek osatzen dute, pilatutako amortizazioa kendu ondoren, honela xehatuta:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2024.06.30ean
<b>KOSTUA</b>				
Aplikazio informatikoak	3.317.602,33	458.367,45	25.200,00	3.801.169,78
Jabetza artistikoa	143.720,82	47.300,00	-	191.020,82
Beste batzuk	113.959,50	-	-	113.959,50
	<b>3.575.282,65</b>	<b>505.667,45</b>	<b>25.200,00</b>	<b>4.106.150,10</b>
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>				
Aplikazio informatikoak	2.315.417,85	424.533,61	-	2.739.951,46
Jabetza artistikoa	131.680,40	4.414,99	-	136.095,39
Beste batzuk	113.959,50	-	-	113.959,50
	<b>2.561.057,75</b>	<b>428.948,60</b>	<b>-</b>	<b>2.990.006,35</b>
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>1.014.224,90</b>			<b>1.116.143,75</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2023.06.30ean
<b>KOSTUA</b>				
Aplikazio informatikoak	3.053.731,96	263.870,37	-	3.317.602,33
Jabetza artistikoa	143.720,82	-	-	143.720,82
Beste batzuk	113.959,50	-	-	113.959,50
	<b>3.311.412,28</b>	<b>263.870,37</b>	<b>-</b>	<b>3.575.282,65</b>
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>				
Aplikazio informatikoak	1.885.176,12	430.241,73	-	2.315.417,85
Jabetza artistikoa	128.894,58	2.785,82	-	131.680,40
Beste batzuk	113.959,50	-	-	113.959,50
	<b>2.128.030,20</b>	<b>433.027,55</b>	<b>-</b>	<b>2.561.057,75</b>
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>1.183.382,08</b>			<b>1.014.224,90</b>

**6.2.** 2024ko ekainaren 30ean, badaude erabat amortizatutako ibilgetu ukiezinako osagaiak 1.819.603,27 eurotan (1.502.651,57 eurotan aurreko ekitaldian).

## 7. OHARRA

### IBILGETU MATERIALA

7.1. Ibilgetu materialaren eta horri dagokion amortizazio pilatuaren osaera honako hau da:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Gehikuntzak	Bajak	Intsuldaketak	Saldoa 2024.06.30ean
Kirol-estadioak eta -pabiloiak	42.943.860,34	3.937,09	-	6.220,00	42.954.017,43
(-) Kirol-estadioen eta					
-pabiloien amortizazio pilatua	-10.866.406,77	-1.098.799,41	-	-	-11.965.206,18
	<b>32.077.453,57</b>	<b>-1.094.862,32</b>	<b>-</b>	<b>6.220,00</b>	<b>30.988.811,25</b>
Beste lur eta eraikuntza batzuk	3.181.906,45	958.657,91	-	-	4.140.564,36
(-) Beste lur eta eraikuntza batzuen					
amortizazio pilatua	-1.193.577,77	-52.296,67	-	-	-1.245.874,44
	<b>1.988.328,68</b>	<b>906.361,24</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>2.894.689,92</b>
<b>LURRAK ETA ERAIKUNTZAK</b>	<b>34.065.782,25</b>				<b>33.883.501,17</b>
<b>KOSTUA</b>					
Makineria	187.401,80	56.700,00	-	-	244.101,80
Beste instalazio batzuk	41.953.104,62	1.573.394,61	-	20.000,00	43.546.499,23
Altzariak eta kirol materiala	2.564.155,15	38.239,44	-	-	2.602.394,59
Ekipo informatikoak	625.003,81	65.089,30	-	-	690.093,11
Garraio osagaiak	239.555,78	-	-	-	239.555,78
	<b>45.569.221,16</b>	<b>1.733.423,35</b>	<b>-</b>	<b>20.000,00</b>	<b>47.322.644,51</b>
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>					
Makineria	187.401,80	8.505,00	-	-	195.906,80
Beste instalazio batzuk	34.102.845,11	2.617.765,13	-	-	36.720.610,24
Altzariak eta kirol materiala	2.478.751,53	37.994,53	-	-	2.516.746,06
Ekipo informatikoak	621.480,78	7.436,58	-	-	628.917,36
Garraio osagaiak	86.333,38	19.560,31	-	-	105.893,69
	<b>37.476.812,60</b>	<b>2.691.261,55</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>40.168.074,15</b>
<b>INSTALAZIO TEKNIKOAK ETA</b>					
<b>BESTE IBILGETU MATERIALAK</b>	<b>8.092.408,56</b>				<b>7.154.570,36</b>
<b>ARIBIDEKO IBILGETUA ETA AURRERAKINAK</b>	<b>69.230,00</b>	<b>3.000,00</b>	<b>-</b>	<b>-51.420,00</b>	<b>20.810,00</b>
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>42.227.420,81</b>				<b>41.058.881,53</b>

<b>2022/2023 EKITALDIA</b>	<b>Saldoa 2022.06.30ean</b>	<b>Gehikuntzak</b>	<b>Bajak</b>	<b>Intsuldaketak</b>	<b>Saldoa 2023.06.30ean</b>
Kirol-estadioak eta -pabiloiak	40.777.949,30	2.165.911,04	-	-	42.943.860,34
(-) Kirol-estadioen eta -pabiloien amortizazio pilatua	-9.475.622,55	-1.390.784,22	-	-	-10.866.406,77
	<b>31.302.326,75</b>	<b>775.126,82</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>32.077.453,57</b>
Beste lur eta eraikuntza batzuk	3.181.906,45	-	-	-	3.181.906,45
(-) Beste lur eta eraikuntza batzuen amortizazio pilatua	-1.142.402,92	-51.174,85	-	-	-1.193.577,77
	<b>2.039.503,53</b>	<b>-51.174,85</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>1.988.328,68</b>
<b>LURRAK ETA ERAIKUNTZAK</b>	<b>33.341.830,28</b>				<b>34.065.782,25</b>
<b>KOSTUA</b>					
Makineria	187.401,80	-	-	-	187.401,80
Beste instalazio batzuk	44.299.830,51	728.109,97	-84.743,58	-2.990.092,28	41.953.104,62
Altzariak eta kirol materiala	2.564.155,15	-	-	-	2.564.155,15
Ekipo informatikoak	625.003,81	-	-	-	625.003,81
Garraio osagaiak	239.555,78	-	-	-	239.555,78
	<b>47.915.947,05</b>	<b>728.109,97</b>	<b>-84.743,58</b>	<b>-2.990.092,28</b>	<b>45.569.221,16</b>
<b>AMORTIZAZIO PILATUA</b>					
Makineria	187.401,80	-	-	-	187.401,80
Beste instalazio batzuk	31.317.616,64	3.024.173,91	-	-238.945,44	34.102.845,11
Altzariak eta kirol materiala	2.408.888,24	69.863,29	-	-	2.478.751,53
Ekipo informatikoak	619.449,90	2.030,88	-	-	621.480,78
Garraio osagaiak	66.773,07	19.560,31	-	-	86.333,38
	<b>34.600.129,65</b>	<b>3.115.628,39</b>	<b>-</b>	<b>-238.945,44</b>	<b>37.476.812,60</b>
<b>INSTALAZIO TEKNIKOAK ETA BESTE IBILGETU MATERIALAK</b>	<b>13.315.817,40</b>				<b>8.092.408,56</b>
<b>ARIBIDEKO IBILGETUA ETA AURRERAKINAK</b>	<b>17.810,00</b>	<b>51.420,00</b>			<b>69.230,00</b>
<b>GARBIA eurotan</b>	<b>46.675.457,68</b>				<b>42.227.420,81</b>



**7.2.** Ibilgetu materialeko elementuen kostu eguneratua honela banatuko da zentroen arabera:

	<b>Lezama</b>	<b>Ibaigane</b>	<b>Museoak</b>	<b>San Mames dendak eta bestak</b>	<b>Guztira</b>
Lurrak eta eraikuntzak	13.841.247,25	-	-	-	13.841.247,25
Kirol-estadioak eta -pabiloiak eta beste eraikuntza batzuk	24.458.579,81	3.989.653,65	-	4.805.101,08	33.253.334,54
Makineria	173.851,80	-	-	70.250,00	244.101,80
Beste instalazio batzuk	27.827.557,55	1.991.819,94	4.823.437,24	8.903.684,50	43.546.499,23
Altzariak eta kirol materiala	315.076,70	196.931,14	-	2.090.386,75	2.602.394,59
Ekipo informatikoak	43.171,03	409.637,57	-	237.284,51	690.093,11
Garraio osagaiak	30.073,07	-	-	209.482,71	239.555,78
<b>KOSTUA GUZTIRA eurotan</b>	<b>66.689.557,21</b>	<b>6.588.042,30</b>	<b>4.823.437,24</b>	<b>16.316.189,55</b>	<b>94.417.226,30</b>

**7.3.** 'Beste lur eta eraikuntza batzuk' epigrafean aldi honetan egingako gehikuntzak Athletic Cluben egoitzari atxikitako lonjen errosketari dagozkio nagusiki.

**7.4.** Ez dago ibilgeturik finantza-errentamenduko erregimenean.

**7.5.** 2022/2023 denboraldira arte, Klubak errentamendu operatiboko erregimenean mantentzen zituen denda ofizialak dituzten higiezinak: Max Center, Errekaldeko Zumarkalea eta Mazarredo Zumarkalea. Higiezin horien alokairu-kostuak gastu gisa erregistratzen ziren, horien sortzapenaren arabera, eta errentamendu horien ezaugarri nagusiak 8. Oharrea zehazten dira. CASTORE babesle berriarekin lortutako akordioaren ondorioz, berak dendak kudeatzen ditu, eta, beraz, hark bere gain hartu ditu errentamenduak, eta hori ezinezkoa izan denean, horien gastua jasanarazi egin da.

**7.6.** Era berean, errentamendu-kontratu operatiboak daude San ameseko eta Lezamako edaritegietan. Errentamendu horiek diru-sarrera gisa erregistratzen dira sortzen diren ekitaldian, eta haien ezaugarri nagusiak 8. Oharrea deskribatzen dira.

**7.7.** Klubak baditu indarrean aseguru-polizak lehen mailako aseguru-etxeekin, 2024ko ekainaren 30ean, kontzeptu hauen arabera:

- a) Erantzukizun zibila, 25.000.000,00 euroko estaldurarekin.
- b) Arrisku anitzekoa, 180.726.619,80 euroko estaldura orokorarekin (San Mameseko kontinenteagatik aseguru sartu da 110.028.414,62 euroko zenbatekoarekin).

**7.8.** Entitateak 1996. ekitaldian bere ibilgetua eguneratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/96 Foru Arauarekin bat etorritz. Hori dela eta, 2.410.056,09 euroko gainbalioa sortu zuen (14. Oharra).

**7.9.** 2024ko ekainaren 30ean, badaude ibilgetu materialaren osagaiak, 35.046.602,77 euroko jatorrizko kostuarekin erabat amortizatuta (28.817.097,53 eurokoa aurreko ekitaldian). Osagai horietatik, 2.808.046,72 euro eraikuntzei dagozkie ekitaldia amaitzean (217.298,07 kopuru bera aurreko ekitaldian).

**7.10.** Ekitaldi-itxieran ez dago inbertsio-konpromiso esanguratsurik.





## 8. OHARRA

### ERRENTAMENDUAK ETA ANTZEKO BESTE ERAGIKETA BATZUK

#### Errentamendu eraginkorrak: Errentaria

**8.1.** Kirol-arroparen babesle berria dela eta, dendekin lotutako errentamendu-kontratuak berak hartu ditu bere gain, eta hori ezinezkoa izan denean, klubaren gastuak jasanarazi dira. 2023/2024 ekitaldian, ATHLETIC CLUBek errentamendu eraginkorreko kontratu hauek mantendu ditu:

#### 2023/2024 EKITALDIA

<b>ALOKATUTAKO ONDASUNA</b>	<b>Errekalde Zumarkaleko merkataritza-lokala</b>	<b>Max Centerreko merkataritza-lokala</b>	<b>Mazarredoko merkataritza-lokala</b>	<b>Derioko pabiloiak</b>	<b>Beste batzuk</b>	<b>GUZTIRA</b>
Kontratuaren data	2016/01/18	2016/01/01	2019/10/31	2016/03/01	Beste batzuk	
Iraupena	10	3(*)(**)	2029/11/30	5(**)	Beste batzuk	
<b>ETORKIZUNEN GUTXIENEN ORDAINKETAK</b>						
- Urtebetera arte	-	% salmenta/gainean	-	38.836,80	-	38.836,80
- Urtebete eta bost urte artean	-	% salmenta/gainean	-	-	-	-
- Bost urtetik gora	-	% salmenta/gainean	-	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>						
<b>EKITALDIAN JASOTAKO GASTUAK</b>	-	<b>90.934,69</b>	-	<b>44.836,80</b>	<b>20.500,00</b>	<b>156.271,49</b>
<b>AURREKO EKITALDIAN JASOTAKO GASTUAK</b>	<b>78.606,44</b>	<b>52.733,00</b>	<b>65.810,90</b>	<b>40.836,80</b>	<b>22.692,00</b>	<b>260.679,14</b>

(\*) Errenta zenbateko aldagorra baino ez da (salmenten %8). Hiru urteko indarraldia eta epe horretatik aurrera automatikoki berritzea.

(\*\*) 2.5 oharrean aipatutako babesle-aldaketa dela eta, zenbateko horiek birfakturatu egiten dira.

San Mames futbol zelaiaren errentamendu-kontratuak 50 urteko hasierako iraupena dauka 2013ko irailaz geroztik, eta beste 50 urterako berriztagarria da. Hasierako errenta 500.000,00 eurokoa zen urtero, KPIren arabera eguneratua, eta hamargarren urtetik aurrera berrikusi behar zen. Horrez gain, San Mames Barria S.M.-ren bazkideen arteko itunen ondorioz, zelai berria amaitu zenetik eta errentaldiak irauten duen bitartean, Klubak San Mames Barria S.M.-ren gainerako bazkideei gune, erabilera eta eskubide zehatz batzuk lagatzen dizkie, ekarpenaren kontraprestazio gisa.

Era berean, Klubak erosteko aukera du errentan hartutako objektuaren gainean, eta alde guztiek finkaren eta ondasunaren prezioa fede onez negoziatzeko konpromisoa hartu dute. Athletic Clubek erosteko aukera baliatzea erabakitzen badu, finkaren eta errentan emandako objektuaren prezioak ibilgetuaren balio garbia hartuko du kontuan.

Ekitaldi honetan, futbol zelaia alokatzeagatik erregistratutako gastua 600.495,90 eurokoa izan da (574.836,63 euro aurreko ekitaldian).

## Errentamendu eraginkorrak: Errentatzailea

8.2. 2023/2024 ekitaldian zehar ATHLETIC CLUBek bere jabetzako ondasunen gaineko errentamendu eraginkorreko kontratu hauek izan ditu:

### 2023/2024 EKITALDIA

ALOKATUTAKO ONDASUNA	Zenbait errentamendu San Mames Barrian eta Lezama (*)	Telefono antena eta beste batzuk (**)	GUZTIRA
Kontratu data	2021 / 2019	Beste batzuk	
Iraupena	2024 / 2026	Beste batzuk	
<b>ETORKIZUNEN GUTXIENEN ORDAINKETAK</b>			
- Urtebetera arte	156.000,00	-	156.000,00
- Urtebete eta bost urte artean	156.000,00	-	156.000,00
- Bost urtetik gora	-	-	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>312.000,00</b>	<b>-</b>	<b>312.000,00</b>
<b>EKITALDIAREN DIRU-SARRERAK</b>	<b>529.519,39</b>	<b>202.047,65</b>	<b>731.567,04</b>
<b>AURREKO EKITALDIKO DIRU-SARRERAK</b>	<b>500.897,13</b>	<b>43.243,05</b>	<b>544.140,18</b>

(\*) Osagai aldagarria dago, eta 2023/2024 denboraldian 140 mila eurora igo da (135 mila eurora aurreko ekitaldian).

(\*\*) 2.5 Oharrea aipatutako babesle-aldaketa dela-eta, zenbateko horiek berriz fakturatzen dira.

## 9. OHARRA FINANTZA-AKTIBO ETA -PASIBOEN KATEGORIAK

### 9.1. FINANTZA-AKTIBOAK

Klubaren finantza-aktiboak, 2024ko ekainaren 30ean eta 2023ko ekainaren 30ean, ondoko kategorietan sailkatzen dira:

### EPE LUZERAKO FINANTZA-TRESNAK

	Ondare tresnak		Eratorko kredituak eta beste batzuk		Guztira	
	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023
<b>KOSTUKO FINANTZA-AKTIBOAK</b>	6.000,00	6.000,00	-	-	6.000,00	6.000,00
<b>KOSTU AMORTIZATUKO FINANTZA-AKTIBOAK</b>	-	-	122.683,94	215.058,67	122.683,94	215.058,67
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>122.683,94</b>	<b>215.058,67</b>	<b>128.683,94</b>	<b>221.058,67</b>

## EPE LABURRERAKO FINANTZA-TRESNAK

	Ondare tresnak		Eratorriko kredituak eta beste batzuk		Guztira	
	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023
<b>KOSTU AMORTIZATUKO FINANTZA-AKTIBOAK</b>	-	-	42.807.208,87	48.251.844,77	42.807.208,87	48.251.844,77
<b>GUZTIRA</b>	-	-	<b>42.807.208,87</b>	<b>48.251.844,77</b>	<b>42.807.208,87</b>	<b>48.251.844,77</b>

Epemuga luzerako eutsitako inbertsioen epemugak honako hauek dira:

	<b>2024.06.30</b>
Zehaztu gabe	122.683,94
<b>Guztira eurotan</b>	<b>122.683,94</b>

## 9.2. FINANTZA-PASIBOAK

Klubaren finantza-pasiboak, 2024ko ekainaren 30ean eta 2023ko ekainaren 30ean, ondoko kategorietan sailkatzen dira:

### EPE LUZERA KO FINANTZA-TRESNAK

	Kreditu-entitateekiko zorrak		Eratorriak eta beste batzuk		Guztira	
	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023
<b>KOSTU AMORTIZATUKO EDO KOSTUKO FINANTZA PASIBOAK</b>	-	-	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00
<b>GUZTIRA</b>	-	-	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>

### EPE LABURRERAKO FINANTZA-TRESNAK

	Kreditu-entitateekiko zorrak		Eratorriak eta beste batzuk		Guztira	
	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023	2023/2024	2022/2023
<b>KOSTU AMORTIZATUKO EDO KOSTUKO FINANTZA PASIBOAK</b>	-	-	40.704.584,16	29.937.019,12	40.704.584,16	29.937.019,12
<b>GUZTIRA</b>	-	-	<b>40.704.584,16</b>	<b>29.937.019,12</b>	<b>40.704.584,16</b>	<b>29.937.019,12</b>



## 10. OHARRA

### TALDEKO ETA ELKARTUTAKO ENPRESETAN INBERTSIOAK EPE LUZERA

Xehetasuna hauxe da:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2024.06.30ean
San Mames Barria S.M.	61.211.517,97	-	-	61.211.517,97
Athletic Club Fundazioa	60.000,00	-	-	60.000,00
<b>ERAKUNDE ELKARTUETAKO PARTIZIPAZIOAK</b>	<b>61.271.517,97</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>61.271.517,97</b>
San Mames Barria S.M.	-7.783.495,73	-838.192,71	-	-8.621.688,44
Athletic Club Fundazioa	-60.000,00	-	-	-60.000,00
<b>FINANTZA-INBERTSIOEN NARRIADURA</b>	<b>-7.843.495,73</b>	<b>-838.192,71</b>	<b>-</b>	<b>-8.681.688,44</b>
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>53.428.022,24</b>	<b>-838.192,71</b>	<b>-</b>	<b>52.589.829,53</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2023.06.30ean
San Mames Barria S.M.	58.233.494,97	2.978.023,00	-	61.211.517,97
Athletic Club Fundazioa	60.000,00	-	-	60.000,00
<b>ERAKUNDE ELKARTUETAKO PARTIZIPAZIOAK</b>	<b>58.293.494,97</b>	<b>2.978.023,00</b>	<b>-</b>	<b>61.271.517,97</b>
San Mames Barria S.M.	-6.694.000,00	-1.089.495,73	-	-7.783.495,73
Athletic Club Fundazioa	-60.000,00	-	-	-60.000,00
<b>FINANTZA-INBERTSIOEN NARRIADURA</b>	<b>-6.754.000,00</b>	<b>-1.089.495,73</b>	<b>-</b>	<b>-7.843.495,73</b>
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>51.539.494,97</b>	<b>1.888.527,27</b>	<b>-</b>	<b>53.428.022,24</b>

**10.1.** SAN MAMES BARRIA S.M. Elkartea 2007ko martxoaren 6an eratu zuen Athletic Clubek Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Bilbao Bizkaia Kutxa, Aurrezkikutxa eta Bahitetxearekin 6.000,00 euroko kapitalarekin, Klubak Kapital Sozialaren %33 ordezkatzen zuten 2.000 partaidetza harpidetuz. Egoitza Bilbon duen Elkarite honek mota guztietako balore, higiezin eta partizipazio sozialak eskuratzea, izatea, gozatzea, administratzea eta negoziatzea ditu helburu.

Zehazki, elkarite hau San Mames zelai berriaren jabea da eta bere finantzaketaz eta eraiketaz arduratu zen. Aipatutako zelai berriaren egitasmoa bazkide konpromisarioek onartu zuten 2007ko maiatzaren 23ko datan.

2007ko ekainean eta 2010eko maiatzean, San Mames Barria S.M. Elkariteak kapitalaren bi gehikuntza egitea adostu zuen, orotara 6.000.000,00 eurokoa, partaideek sinatu eta ordaindu zutena bere parte-hartzearen portzentajearen arabera. Athletic Clubi dagokionez, %33,33koa, hau da, 2.000.000,00 euro.

Geroago, 2010eko ekainaren 30ean, kapital sozialaren bigarren gehikuntza egin zen, 16.800.000,00 eurokoa, Athletic Clubek egungo San Mames zelaia dagoen lur-eremuaren ekarpena eginez.

Kapitala hainbat aldiz handitu ondoren, Athletic Cluben kapital soziala, 2016ko ekainaren 30ean, 43.702.000,00 eurokoa zen, euro bateko balio nominaleko 43.702.000 partizipaziotan gauzatua, hau da, egun horretan San Mames Barria S.M.-ren kapital sozialaren %24,67.

Horrez gain, 2016ko ekainaren 30ean, San Mames Barria S.M.-ren Ezohiko Batzar Nagusiak Athletic Cluben kapital-gehikuntza onartu zuen, diruzkoa ez den ekarpenarekin, San Mames estadioaren estalkia zabaltzeko obra egiteko, Bazkide horrek egikaritu beharrekoa, egikaritze horretan inbertitutako kostuen balioaren arabera. Gehikuntza hori Athletic Clubek hartu zuen bere gain erabat, eta gainerako bazkideek uko egin zioten gehitze horren aurrean lehenespene-eskubideari. 2018ko ekainaren 28an, 14.469.396 eurotan handitu zen sozietatearen kapitala, bakoitza euro bateko balio nominaleko 14.469.396 partizipazio sozialen jaulkipenez, eta Athletic Clubek osorik harpidetu zituen partaidetza horiek, diruzkoa ez zen ekarpen baten bidez. Ondoren, zenbateko hori Batzar Orokor Unibertsalak aldatu zuen, 2018ko abenduaren 21ean, eta 13.733.495 eurokoa izan zen, ABEEarekin akordioa lortu

baitzen. Akordio horren arabera, ordaintzeke zegoen erreklamazioa 735.901,60 eurotan utzi zen, ondoren Athletic Club-i ordaintzeko, aldez aurretik bere gain hartu behar izan baitzituen obren kostua.

Kapitala hainbat aldiz handitu ondoren, Athletic Cluben kapital soziala, 2022ko ekainaren 30ean, 58.233.494,97 eurokoa zen, euro bateko balio nominaleko 58.233.495 partaidetzatan gauzatuta, hau da, egun horretan San Mames Barria S.M.-ren kapital sozialaren %29,084.

2023ko urtarrilean, San Mames Barria S.M.-ren Batzar Orokor Unibertsalak kapitala zabaltzea erabaki zuen, Bilboko Udalak 101.358 euroko kreditu bat eta Athletic Clubek egindako eskailera mekanikoekin lotutako obra – 2.978.023 eurokoa – diruzkoa ez den ekarpen baten bidez. Eragiketa horren ondoren, San Mames Barria S.M.-ren kapital soziala 203.423.354 partizipazio sozialekoa da, bakoitza euro batekoa.

2024ko eta 2023ko ekainaren 30ean, Athletic Clubek %30,09ko partaidetza zuen San Mames Barria S.M. sozietatean.

Athletic Clubek ez du San Mames Barria S.M. elkartearen kontrolik, bertan duen partizipazioa ez delako horren adierazgarri, eta gainera, San Mames Barria S.M. Elkartearen baitan erabakiak %90eko gehiengo indartuaz hartzen dira.

SAN MAMES BARRIA S.M.-ren egoitza Bilbon dago.

Ekitaldi honetan ez da dibidendurik banatu.

Elkarteak ez du burtsan kotizatzen.

2023 eta 2022ko ekitaldien datu ekonomikoak, Elkartearen kudeaketa organoak berak emanak, Batzar Orokorrak onartuak eta aldeko iritziz auditatuak, honako hauek dira:

<b>San Mames Barria S.M.</b>	<b>2023.12.31</b>	<b>2022.12.31</b>
Kapital Soziala	203.423	200.344
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	-24.441	-21.589
Ekitaldiko emaitzak	-2.808	-2.851
<b>ONDARE GARBIA</b>		
<b>milaka eurotan</b>	<b>176.174</b>	<b>175.904</b>

Aribideko ekitaldian, Galdu-Irabazien kontuan 838.192,71 euroko zenbatekoaren narriadura onartu da (1.089.495,73 eurokoa aurreko ekitaldian), aipatutako Elkartearen Klubak duen partizipazioaren balio teorikoaren arabera, eta aurreko oharretan aipatutakoa eta 2024 ekitaldirako aurreikusitako emaitza aintzat hartuta.

**10.2.** Athletic Club Fundazioan duen partizipazioa 2002ko ekitaldian entitatea eratu zenean egindako ekarpenaren arabera da, 2002ko otsailaren 26ko 464. zenbakidun eskrituraren arabera. Sozietatearen egoitza Bilbon dago, Mazarredo Zumarkaleko 23an (Ibaigane Jauregia).

Sorrerako ekarpena berreskuragarria ez denez, Klubak 2013/2014 ekitaldian haren narriadura erregistratu zuen.

2024ko ekainaren 30ean, Athletic Cluben eta Fundazioaren arteko eragiketa arruntengatiko kontuaren saldo garbia 818.817,65 eurokoa da (zorduna) (1.233.190,30 euro aurreko ekitaldian zorduna), eta 'Publizitate-zordunak' atalean erregistratuta dago. Ordaintzeke dauden kopuruengatik ez da interesik sortu.



## 11. OHARRA

### EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Xehetasuna hauxe da:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2024.06.30ean
G-12 Lehen Maila, A.I.E.	6.000,00	-	-	6.000,00
<b>KIROL-ERAKUNDEEN</b>				
<b>PARTAIDETZAKO</b>	<b>6.000,00</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>6.000,00</b>
<b>ONDARE-TRESNAK</b>				
Fidantzak	215.058,67	87.223,29	-179.598,02	122.683,94
<b>BESTE FINANTZA-AKTIBO BATZUK</b>	<b>215.058,67</b>	<b>87.223,29</b>	<b>-179.598,02</b>	<b>122.683,94</b>
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>221.058,67</b>	<b>87.223,29</b>	<b>-179.598,02</b>	<b>128.683,94</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Gehikuntzak	Erretiroak	Saldoa 2023.06.30ean
G-12 Lehen Maila, A.I.E.	6.000,00	-	-	6.000,00
<b>KIROL-ERAKUNDEEN</b>				
<b>PARTAIDETZAKO</b>	<b>6.000,00</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>6.000,00</b>
<b>ONDARE-TRESNAK</b>				
Fidantzak	316.344,57	9.485,58	-110.771,48	215.058,67
<b>BESTE FINANTZA-AKTIBO BATZUK</b>	<b>316.344,57</b>	<b>9.485,58</b>	<b>-110.771,48</b>	<b>215.058,67</b>
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>322.344,57</b>	<b>9.485,58</b>	<b>-110.771,48</b>	<b>221.058,67</b>

**11.1.** A.I.E. Lehen Mailako G-12 partaidetza %8,33koa da.

**11.2.** 'Fidantzak' epigrafearen barruan, 2023-2024 ekitaldian 100.000,00 euro EEFFko gordailututako fidantzei dagozkie.

**11.3.** Era berean, 5.863,30 euro (63.728,16 euro aurreko ekitaldian) Eusko Jaurlaritzak bidalitako likidazioen bidez egindako gordailuak dira, errekurrituta eta hornituta dauden partida egunetan segurtasuna bermatzeko.



## 12. OHARRA ZORDUNAK

Kobratu beharreko kontuek honako xehetasun hau dituzte:

	2024.06.30	2023.06.30
San Mames Barria S.M.	735.901,30	735.901,30
<b>TALDEKO ERAKUNDEAK ETA ELKARTUAK</b>	<b>735.901,30</b>	<b>735.901,30</b>
Futbol Profesionaleko Liga Nazionala	2.403.565,11	324.136,54
Emakumezkoen futboleko Liga Profesionala	174.788,18	-
UEFA	472.247,55	-
Espainiako Futbol Federazioa	1.014.927,08	624.360,77
Beste kirol entitate batzuk	14.596.250,70	1.417.716,27
Kirol erakundeak jaulkitzeke dauden fakturak	2.179.038,91	6.722.520,35
<b>KIROL ERAKUNDEAK</b>	<b>20.840.817,53</b>	<b>9.088.733,93</b>
<b>EGON DAITEZKEEN KAUDIMENGABEZIETARAKO HORNIDURA</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
<b>KIROL-ERAKUNDE ZORDUNAK, GARBIA</b>	<b>20.840.817,53</b>	<b>9.088.733,93</b>
Merkataritzako zordunak	184.377,04	219.395,35
Publizitate-zordunak	2.305.202,98	2.146.443,37
Emanaldiengatik zordunak	2.220.684,58	1.873.355,32
Estatikoagatik zordunak	3.152.583,96	3.554.603,06
Marken lagapenagatik zordunak	1.875.663,54	847.594,62
Beste zordun batzuk	1.588.525,49	5.026.751,39
Jaulkitzeke dauden bezeroen fakturak	164.952,05	125.532,55
<b>BESTELAKO ZORDUNAK</b>	<b>11.491.989,64</b>	<b>13.793.675,66</b>
<b>EGON DAITEZKEEN KAUDIMENGABEZIETARAKO HORNIDURA</b>	<b>-4.500.000,00</b>	<b>-4.500.000,00</b>
<b>ZORDUN BATZUK, GARBIA</b>	<b>6.991.989,64</b>	<b>9.293.675,66</b>
<b>ZORDUNAK GUZTIRA eurotan</b>	<b>28.568.708,47</b>	<b>19.118.310,89</b>

**12.1.** Futbol Profesionaleko Liga Nazionalak zor daukan saldoa, batez ere, 21.4 Oharrean aipatzen diren emanaldi-eskubideei dagokie, bai eta babesletza, lizentzia, kiniela eta bestelakoengatik kitape nei ere. Era berean, 'Jaulkitzeke dauden bezeroen fakturak' epigrafean, 1.025.475,12 eurok jatorri bera dute (2.861.508,75 euro aurreko denboraldian).

**12.2.** Paris Saint Germain-ekin sinatutako kontratuak, Ander Herrera jokalaria eskualdaketa zela-eta, kirol-etekinen arabera kobratu beharreko zenbateko batzuk ezartzen zituen.

**12.3.** 2023ko uztailaren 7an, Athletic Clubek eta Real Celta de Vigok Unai Nuñez Gestoso jokalaria federazio-eskubideak aldi baterako eskualdatzeko akordioa sinatu zuten, eta eskubide horiek behin betiko transferitzeko aukera jasotzen zuen. 2024ko ekainean baliatu zen aukera hori.

### 12.4. ZORDUNAK ESTATIKOAGATIK

2024 eta 2023ko ekainaren 30ean, 3.037.038,40 euro aurreko denboraldietatik datorren zorrari dagozkio, SANTA MONICA SPORTS TALDEAREN prozedura judicialari jarraituz eta hurrengo puntuko horniduren barruan sartuta.

### 12.5. ZORDUNEN BALIZKO KAUDIMENGABEZIETARAKO HORNIDURAK

Honako bilakaera hau izan du:

	2024.06.30	2023.06.30
Hasierako saldoa	4.500.000,00	4.500.000,00
Gastuen konturako zuzkidurak	-	-
Berreskurapenak	-	-
Aldakuntza horniduran	-	-
Baliogabetzeak	-	-
<b>Azken saldoa eurotan</b>	<b>4.500.000,00</b>	<b>4.500.000,00</b>

## 13. OHARRA

### FINANTZA-AKTIBOEN IZAERA ETA ARRISKU-MAILA

Arrisku nagusia kredituaren arriskua da. Izan ere, bere jarduna Estatuko merkatuaren barruan denez gero, truke-tasatik eta bestelako prezio-arriskuetatik eratorriko merkatu arriskuak garrantzi eskasakoak dira. Aurreko 12. Oharrean zehazten dira aribideko ekitaldian eta aurrekoetan zordun-mota desberdinei kobratu beharreko saldoak berreskuratzean izan daitezkeen balizko galeretarako egindako hornidurak.

## 14. OHARRA

### FUNTS PROPIOAK

Kontu honek 2023/2024 eta 2022/2023ko ekitaldi ekonomikoetan ondoko mugimendua dauka:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Intsuldaketak	Gehikuntzak	Saldoa 2024.06.30ean
Fondo soziala	100.300.998,44	-	247.450,00	100.548.448,44
Kapitalizazio-erreserba	3.790.959,56	-	-	3.790.959,56
2022/2023 emaitza	-	-	-	-
2023/2024 emaitza	-	-	-	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>104.091.958,00</b>	<b>-</b>	<b>247.450,00</b>	<b>104.339.408,00</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Intsuldaketak	Gehikuntzak	Saldoa 2023.06.30ean
Fondo soziala	109.386.743,71	-10.624.657,27	1.538.912,00	100.300.998,44
Kapitalizazio-erreserba	3.790.959,56	-	-	3.790.959,56
2021/2022 emaitza	-10.624.657,27	10.624.657,27	-	-
2022/2023 emaitza	-	-	-	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>102.553.046,00</b>	<b>-</b>	<b>1.538.912,00</b>	<b>104.091.958,00</b>

**14.1.** Indarrean dauden Estatutu Sozialetako 93. Artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Kluba deseginez gero, bere hartzeko likidua Athletic Club Fundazioari itzuli beharko zaio

**14.2.** 2005/2006 ekitaldian, Entitateak Fondo Sozialari 6/96 F.A. Eguneratze Erretserba aplikatu zion. Erreserba hori ibilgetu materialeko osagaiak eguneratzean sortu zen, Bizkaiko 6/96 Foru Arauan aurreikusten denez, 7. Oharrean azaldutako irizpideak erabiliz.

#### 14.3. KAPITALIZAZIO-ERRESERBA

11/2013 Foru Araudiaren 51. artikuluari jarraikiz, sozietateen gaineko zergaren abenduaren 5ekoa eta aipatutako artikuluan ezarritako baldintza eta zehaztapenen arabera, 2016/2017 ekitaldian Klubak zerga horren kalkuluan 2.075.291,64 euroko zenbatekoaren murrizketa sartu zuen ekitaldiaren zerga-oinarrian

(1.715.667,92 euro aurreko ekitaldian). Kopuru hori ekitaldiko Funts Propioen %10eko gehikuntzari dagokio, aurreko ekitaldiko etekinaren murriztapenari eratorritakoa. Halaber, 2017/2018 ekitaldiko sozietateen gaineko zerga aipatutako ekitaldiaren funts propioetan izandako gehikuntzan murriztu zen. Onura fiskal hori aplikatzeak berekin dakar aipatutako gehikuntzaren zenbateko bera erabiltzea kenkariari dagokion zergaldia amaitzen denetik gutxienez bost urteko epean erabili ezin den erreserba baterako, kapitalari gehitu zaion gehikuntza horren zatia izan ezik. Kapitalizazio-erreserba hori erakundeari aplikatu beharreko araudiari buruz 20. Oharrean esandakoaren eraginpean dago.

#### 14.4. ONDARE GARBIA KIROLEKO LEGEAREN ONDOREETARAKO

Abenduaren 28ko 22/2021 Legea indarrean jartzeak ekarri zuen, besteak beste, berriaz indargabetzea galerengatik



erantzukizun objektiboaren lege-araubidea, Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen aurreko 7.4 Xedapen Gehigarriaren lehen tartekian ezarritakoa eta abal baten bidez bermatzen zena.

Aurrerantzean, Klubaren Estatutuek libreaki ezarri behar dituzte Zuzendaritza-Batzordeetako kide izateko baldintzak, hala nola antzinasuna, abalak eta abar; era berean, Klubetako batzordekideei aplikatu beharreko erantzukizun-araubidea ezarri behar dute.

Klubei esleitutako araugintza-eskumen horren esparruan, Athleticen Estatutuek – 2022ko maiatzaren 23ko Ezohiko Batzar Nagusiak onartuak – Klubeko Zuzendaritza-Batzordeko kideen erantzukizun-araubide bikoitza ezarri zuten:

(i) Klubaren, gainerako bazkideen eta hirugarren pertsonen edo erakundeen aurrean erantzukizuneko araubide orokorra, doluzko, erruzko edo zabarkeriazko ekintzen ondorioz sortutako kalteengatik eta sortutako zorrengatik (51. art.).

(ii) Erantzukizun-araubide orokorraren osagarri gisa, estatutuen 15. Xedapen Gehigarriak, gainera, erantzukizun bereziko araubidea ezarri zuen, kalte-ordainei buruzkoa, izaera pertsonalekoa eta, funtsean, subjektiboa duena, Zuzendaritza-Batzordeko kideentzat, dolo, erru edo zabarkeria larriagatik egindako kudeaketa-aldian sortutako emaitza ekonomiko negatiboengatik. Araubide hori aplikatuko da kirol-araudi publikoan horrelako erantzukizun-erregimenik ez dagoenean.

Aparteko erantzukizun berezi hori eskatzeko, Klubak Zuzendaritza-Batzordeko kideen aurrean dagokion erantzukizun-ekintza soziala gauzatu behar du auzitegi arrunten aurrean (15. Xedapen Gehigarriko 4.f) idatz-zatia). Ekintza honen helburua da Zuzendaritza-Batzordeko kideek beren agintaldian zehar izandako dolozko edo zabarkeria larriko ekintza edo ez-egiteak eragindako emaitza ekonomiko negatiboak ondare sozialera itzultzea. Ekintza hori egitea erabakitzeak eskumen eskusiboa eta eskuordeezina Konpromisarioen Batzarrari dagokio, botoa eman duten pertsonen hiru bostenen aldeko botoarekin.

Eta erantzukizun bereziko esparru horretan eman litekeen babilzko kondena-epai irmo baten eraginkortasuna bermatzeko, Estatutuen 15. Xedapen Gehigarriak berme osagarria jarri behar zela gehitu zuen, Zuzendaritza-Batzordeko kideen kargura, Konpromisarioen Batzarrari aurkeztutako azken aurrekontuaren ehuneko bostari (%5) dagokion zenbatekoa, eta gero eguneratu egin beharko zela agintaldian.

**14.5. 3.** Oharrean aipatzen denez, aurtengo denboraldian zehar Klubako ondarean 247.450,00 euroko zenbatekoaren gehikuntza eman da, bazkide berrien sarreraren kuotei dagokiena. 2022/2023 denboraldian 1.538.912,00 euro izan ziren.

## 15. OHARRA KAPITAL-DIRULAGUNTZAK

Ekitaldian izan duen bilakaera honako hau da:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Altak	Emaitzetara intsualdaketak	Saldoa 2024.06.30ean
Egiturazko hobekuntzetarako dirulaguntza	1.301.609,07	263.653,61	-182.200,95	1.383.061,73
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>1.301.609,07</b>	<b>263.653,61</b>	<b>-182.200,95</b>	<b>1.383.061,73</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Altak	Emaitzetara intsualdaketak	Saldoa 2023.06.30ean
Egiturazko hobekuntzetarako dirulaguntza	850.578,71	567.662,75	-116.632,39	1.301.609,07
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>850.578,71</b>	<b>567.662,75</b>	<b>-116.632,39</b>	<b>1.301.609,07</b>

Ekitaldian jasotako dirulaguntzetatik, 220.093,61 euro emakumezkoen futboleko lehen mailan parte hartzen duten kirol-klub eta -sozietate anonimoen azpiegiturak hobetzeko emandako laguntzei dagozkie.

2023ko apirilean, Kirol Kontseilu Gorenaren 567.662,75 euroko dirulaguntza eman zitzaioa jakinarazi zitzaion Klubari, kirol-instalazioen jabe diren erakundeentzako laguntza-programaren barruan, kirol-instalazioak berritzeko obretarako, nazioarteko

kirol-ekitaldiak hartzeko, efizientzia energetikoari, inklusioari eta iraunkortasunari dagokienez.

2021/2022 ekitaldian, Klubari 990.444,02 euroko laguntza eman zion Kirol Kontseilu Gorenak, emakumezkoen kategoria gorenean parte hartzen duten klubei eta KSA-ei laguntzak emateko programaren barruan, lehiaketarako beharrezkoak diren egiturazko hobekuntzak egiteko. Hona hemen xehetasunak:

**Emandako zenbatekoa**

Lehen taldeak erabiltzen dituen kirol-instalazioen mantentze-lanak	80.000,00
Lezamako eraikin nagusia birmoldatzea; administrazio-espazioa, aldagelak eta jantokia	623.581,79
Lezamako 2. zelaiko argiztapen-sistema berritzea	286.862,23
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>990.444,02</b>

## 16. OHARRA

### HORNIDURAK EPE LUZERA

Bere bilakaera ekitaldian honela da:

2023/2024 EKITALDIA	Saldoa 2023.06.30ean	Aplikazioak	Aldakuntza	Saldoa 2024.06.30ean
Ohiz kanpoko hornidura	38.809.475,19	-	-14.164.856,32	24.644.618,87
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>38.809.475,19</b>	<b>-</b>	<b>-14.164.856,32</b>	<b>24.644.618,87</b>

2022/2023 EKITALDIA	Saldoa 2022.06.30ean	Aplikazioak	Aldakuntza	Saldoa 2023.06.30ean
Ohiz kanpoko hornidura	60.247.882,81	77.499,72	-21.515.907,34	38.809.475,19
Beste hornidura batzuk	623.368,26	-623.368,26	-	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>60.871.251,07</b>	<b>-545.868,54</b>	<b>-21.515.907,34</b>	<b>38.809.475,19</b>

Klubak, 2017/2018 denboraldiko emaitzen kargura, 76.033 mila euroko ezohiko hornidura erregistratu zuen, eta 40.000 mila eurotan handitu zen 2018/2019 denboraldian. Kontabilitate Plan Orokorrek baimenduta, Klubak data horretarako egindako diru-sarreraren eta gastuen egituraren oinarrituta eta erabateko zuhurtasuneko irizpideak aplikatuta egindako zenbatespenetan oinarrituta egin zen hornidura hori, gerta zitezkeen defizitak estaltzeko, baldin eta zenbatetsitako diru-sarrerak nahikoak ez badira kirol-, merkataritza- eta lehiakortasun-egoera jakin batzuetan egungo betebeharrak betetzearen ondoriozko kostuak estaltzeko.

Kirol-klubak, ekitaldi bakoitzaren itxieran, hainbat urtetarako kontratu irmoak ditu sinatuta (iraganeko gertaera), eta horrek berekin dakar urteko zenbateko handiak ordaintzeko konpromiso saihestezina.

Klubak uste du kontratu horiek kostu bidezko hartzeko baldintzak betetzen dituztela, eta, beraz, kontratu horientatik hornitu ahal direla. Kontratu horien horniduraren balorazioa kontratu horiek betetzeak dakartzan gehiegizko kostuen arabera zehazten da, haietatik jasotzea espero ziren onura ekonomikoen aldean. Hau da, kostuak diru-sarreraren aldean.

2019/2020 eta 2020/2021 denboraldietan izandako aldaketan ez da kontuan hartu COVID 19aren eraginaren estimazioa ekitaldiko

emaitzetan. 2021/2022 ekitaldian hornidura hori Batzarrak onartutako aurrekontura egokitu zen.

Era berean, 2021/2022 ekitaldian 623.368,26 euroko hornidura erregistratu zen balizko lan-erreklamazioengatik, eta 11.3 Oharrean aipatutako tasekin lotutako beste batzuk, epe laburrean erregistratuta daudenak.

2022/2023 ekitaldian, Klubak 21.515.907,34 euro eskualdatu zituen kostu bidezko kontratuen horniduratik ekitaldiko emaitzara, emaitza aurrekontuan jasotakoa baino handiagoa delako.

Ekitaldiaren aldaketa lan-erreklamazio batzuk itzultzean eta aurreko ekitaldietan bazkideekin hartutako konpromisoetan eta ekitaldiko kostu bidezko kontratuen hornidura aldatzean oinarritzen da.

## 17. OHARRA

### BESTE FINANTZA-PASIBO BATZUK EPE LUZE ETA LABURREAN

Xehetasuna hauxe da:

	Saldoa 2024.06.30ean		Saldoa 2023.06.30ean	
	LUZEA	LABURRA	LUZEA	LABURRA
Kirol-erakundeekiko zorrak	-	422.662,83	-	80.013,68
Jasotako fidantzak	6.000,00	4.788,00	6.000,00	3.290,00
Beste kontzeptu batzuk	-	494.509,82	-	676.144,35
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>6.000,00</b>	<b>921.960,65</b>	<b>6.000,00</b>	<b>759.448,03</b>

17.1. Kirol-erakundeekiko zorren xehetasuna honako hau da:

	Saldoa 2024.06.30ean		Saldoa 2023.06.30ean	
	LUZEA	LABURRA	LUZEA	LABURRA
Futbol Profesionaleko Liga Nazionala	-	343.209,16	-	-
Beste batzuk	-	79.453,67	-	80.013,68
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>-</b>	<b>422.662,83</b>	<b>-</b>	<b>80.013,68</b>

17.2. 'Beste kontzeptu batzuk' goiburukoan dagoen kopuruak ibilgetuaren hornitzaileak dira.

## 18. OHARRA

### HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE ZOR BATZUK

Osaera hau dute:

	2024.06.30	2023.06.30
Hornitzaileak	3.622.616,83	2.557.727,99
Enpresa elkartuen hornitzaileak	121.901,20	-
Beste hartzekodun batzuk	785.269,14	611.054,83
Langileak (ordaintzeke dauden ordainsariak)	3.409.739,79	1.012.029,24
Herri-administrazioak	31.843.096,55	24.996.759,04
<b>HARTZEKODUNAK GUZTIRA eurotan</b>	<b>39.782.623,51</b>	<b>29.177.571,10</b>

18.1. Herri-administrazioen xehetasuna hauxe da:

	2024.06.30	2023.06.30
Gizarte Segurantza	439.924,83	403.624,80
Herri Ogasuna BEZ	3.985.561,60	1.700.636,93
Herri Ogasuna PFEZ	27.417.610,12	22.892.497,31
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>31.843.096,55</b>	<b>24.996.759,04</b>

## 18.2. Hornitzaileei egindako ordainketen atzerapenei buruzko informazioa.

31/2014 Legearen azken xedapen bigarrena, abenduaren 3koa, uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapenaren ordeztatu dena.

	2023/2024	2022/2023
	EGUNAK	EGUNAK
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	34	38
Ordaindutako eragiketen ratioa	34	37
Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa	28	64
	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA
Egindako ordainketak guztira	42.692.269	34.590.992
Ordaintzeke daudenak guztira	766.240	1.004.787

15/2010 Legearen ezarritako gehienekoa baino aldi laburragoan ordaindutako fakturen kopuruari buruzko informazioa

	2023/2024	Ordaindutako guztizkoaren gaineko %	2022/2023	Ordaindutako guztizkoaren gaineko %
Ezarritako gehieneko epearen barruan ordaindutako zenbatekoa eurotan	40.894.059,22	96%	29.970.468,66	70%
Ezarritako gehienekoa baino aldi laburragoan ordaindutako fakturen kopurua	8.053	94%	5.928	81%

## 19. OHARRA

### EPE LABURREKO PASIBOAREN PERIODIFIKAZIOAGATIKO DOIKUNTZAK

Xehetasuna hau da:

	2024.06.30	2023.06.30
Bazkideen kuoten periodifikazioa	13.859.684,30	12.517.126,60
Bestelako diru-sarrera aurreratutako (VIP GUNEA)	5.559.500,95	4.951.908,97
Bestelako diru-sarrera aurreratutako	106.997,39	66.348,17
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>19.526.182,64</b>	<b>17.535.383,74</b>

Kuotak hurrengo denboraldiari dagozkion ekitaldian egindako kuota-kobrantei dagozkie, kuoten kobrantzak urte naturalaren arabera egiten baitira. 'Bazkideen kuoten periodifikazioa' epigrafeak, 2024ko ekainaren 30ean, urte naturalaren arabera 2024/2025 denboraldiaren hasierari dagozkion bazkideen kuotak jasotzen ditu. Abonuak ere jasotzen dira.

#### AURRERATUTAKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK – VIP GUNEA

Ekitaldia ixtean, datorren denboraldirako hainbat palko eta besaulkien kobrantza jaso dira.



## 20. OHARRA

### EGOERA FISKALA

Kontabilitateko emaitza eta Sozietateen gaineko Zerga-oinarriaren arteko uztarketa honako hauxe da:

	2024.06.30	2023.06.30
<b>Kontabilitateko emaitza zergen aurretik</b>	-	-
Etengabeko doikuntzak:		
- Jatorria ekitaldian (hornidurak)	-14.164.856,32	-21.515.907,34
- Jatorria ekitaldian (beste batzuk)	-538.657,37	-604.402,05
- Jatorria ekitaldian (beste batzuk)	2.070.348,64	2.099.805,93
- Jatorria aurreko ekitaldietan (berrinbertitzeko salbuespena)	-5.500.000,00	-
Aldi baterako doikuntzak:		
- Jatorria aurreko ekitaldietan	-	-
<b>Aurretiko zerga-oinarria</b>	<b>-18.133.165,05</b>	<b>-20.020.503,46</b>

2023/2024 ekitaldi honetan eta aurrekoetan, eta kontabilitateko zuhertasun-irizpideari jarraituz, ez dira aktibatu zerga-oinarri negatiboaren eta sortutako zerga-kenkariaren ondoriozko kreditu fiskalak. Aurreko ekitaldiko sozietateen gaineko zergagatiko gastua kalkulatzeko, indarrean dagoen zerga-tasa aplikatu zitzaion aurreko taulan adierazitako zerga-oinarriari, eta inbertsioengatik eta beste kontzeptu batzuegatik aplikatu beharreko kuota-kenkariak kontuan hartu ziren. Ekitaldian bertan sortutako kenkariak alde batera utzita, hauek dira egiteke dauden kenkariak:

	Denboraldia	2024.06.30
Kenkariak, %35eko mugarekin	2018/2019	493.905,33
Kenkariak, %35eko mugarekin	2019/2020	1.363.162,84
Kenkariak, %35eko mugarekin	2020/2021	730.669,23
Kenkariak, %35eko mugarekin	2022/2023	844.488,38
Kenkariak, %70eko mugarekin	2019/2020	11.708,50
Beste kenkari batzuk	2018/2019	26.902,50
Beste kenkari batzuk	2021/2022	7.912,50
<b>GUZTIRA eurotan</b>		<b>3.478.749,28</b>

Halaber, egiteke dauden zerga-oinarri negatiboak, ekitaldian bertan sortutakoak alde batera utzita, honako hauek dira:

	Denboraldia	2024.06.30
Zerga-oinarri negatiboa	2018/2019	16.808.872,23
Zerga-oinarri negatiboa	2019/2020	42.292.248,46
Zerga-oinarri negatiboa	2020/2021	41.323.068,82
Zerga-oinarri negatiboa	2021/2022	30.817.779,56
Zerga-oinarri negatiboa	2022/2023	20.565.064,71
<b>GUZTIRA eurotan</b>		<b>151.807.033,78</b>

Aurreko ekitaldietan, zenbait jokalariren deuseztapen-klausulak ordaintzeagatik sortutako gainbalioak Sozietateen gaineko Zergari buruzko 3/1996 Foru Arauan aurreikusitako berrinbertsioagatiko salbuespen-erregimenari lotu zitzaizkion. Araubide hori aplikatuz, Klubak konpromisoa hartu zuen transakzio horietan lortutako zenbateko osoa ibilgetu materialaren, ukiezinaren, higiezinatiko inbertsioen eta bestelako aktibo egokien osagaietan berriz inbertitzeko, transakzioa egin aurreko urtearen eta ondorengo hiru urteen arteko epearen barruan. Berrinbertsioa egiten den osagaiek bost urtez egon beharko dute Klubaren ondarean, galera justifikaturik izan ezean, berrinbertsioa gauzatu denetik zenbatzen hasita. Aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak kontuan hartuta, 25.873 mila euro gauzatzeke daude (ekitaldi honetan gauzatutakoak kontuan hartu gabe). 2020ko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretuak, COVID 19aren krisiak eragindakoak, urtebete luzatu zuen inbertsio horiek gauzatzeko epea. 2022ko uztailaren 29an, Klubak epe hori luzatzeko eskaera aurkeztu zuen. Zuzendaritza-Batzordearen arabera berrinbertsio hori egingo da eta berriz inbertitu beharreko ondasunen iraunkortasun-baldintzak beteko dira.

Eginbehar hauek ez betetzeak, lortutako errentari dagokion kuota osoaren zatia ordaintzea ekarriko luke, eta horrez gain, hark amaitu zuen zergaldiari dagokion atzerapeneko interesak ere.

Azken lau ekitaldietako zerga-egoeraren egiaztapena zabalik dago, erakundeari eragiten dioten zerga guztiengatik.

2023/2024 ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko aplikatu behar den legeria 11/2013 Foru Araua da (Bizkaiko Foru Aldundia), arestian aipatutako 2/2018 FA-k ezarritako aldaketekin.

Kirol-erakundeei aplikatu beharreko zerga-araudiari buruz dau den interpretazio desberdinak direla eta, zergapeko egitate eta zerga desberdinei buruzkoak, Klubak zerga-administrazio eskudunaren aurrean egiaztapenerako zabalik dituen zerga-ekitaldiei dagokienez, zenbait zerga-pasibo kontingente egon litezke, eta 2024ko ekainaren 30ean erantsitako egoera-balantzean ez dago inolako hornidurarik, eta ezin da kuantifikazio objektiborik egin.

## 21. OHARRA DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK

### 21.1. Hornikuntzak:

Erosketa guztiak Estatu espainiarreko merkatuan egiten dira.

### 21.2. Langileen gastuak:

Honako xehetasun hauek ditu:

	2024.06.30	2023.06.30
Kirol lantaldea		
- Lehen taldea	84.757.338,76	75.806.933,76
- Gainerako taldeak	10.982.424,84	7.864.415,92
	95.739.763,60	83.671.349,68
Kirolekoak ez diren langileak	13.071.308,06	11.647.437,36
Gizarte Segurantza eta beste batzuk	3.987.246,11	3.537.523,06
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>112.798.317,77</b>	<b>98.856.310,10</b>

Kalte-ordainak 365.692,98 eurokoak izan dira kirol-langileei dagokienez eta 119.033,53 euro kirol-arlokoak ez diren langileei dagokienez (539.107,12 eurokoak aurreko denboraldian).

Honela zehazten dira 'Gizarte Kargak':

	2024.06.30	2023.06.30
Gizarte Segurantza	3.975.305,49	3.526.414,56
Osalan	11.940,62	11.108,50
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>3.987.246,11</b>	<b>3.537.523,06</b>



### 21.3. Kudeaketa korrontearen beste gastu batzuk:

	2024.06.30	2023.06.30
Futbol arbitrajeen eskubideak	1.330.191,43	947.660,20
Erakundeentzako diru-laguntzak	2.088.348,64	2.040.339,93
FPLN (21.4 Oharra)	6.075.745,53	5.991.635,87
Kirol-elkarteentzako kuotak	505.632,53	644.799,20
Beste batzuk	96.514,20	62.466,00
<b>Guztira eurotan</b>	<b>10.096.432,33</b>	<b>9.686.901,20</b>

'Erakundeentzako diru-laguntzak' goiburukoaren barruan, Athletic Club Fundazioari eginiko diru ekarpenak jasotzen dira, zenbateko osoa 2.045.348,64 eurokoa izanik (1.926.640,24 euro aurreko ekitaldian).

### 21.4. Negozio-zifraren zenbateko garbia:

	2024.06.30	2023.06.30
Lehiaketagatiko diru-sarrerak	6.426.270,65	3.642.620,85
Bazkideen eta abonatuaren diru-sarrerak	26.224.753,32	25.109.246,76
San Mames VIP Arearen diru-sarrerak	6.361.836,15	5.483.892,48
Ekitaldiak eta beste batzuk (*)	3.212.135,45	1.365.420,49
Emankizunengatiko diru-sarrerak	68.027.728,35	67.228.127,56
Merkaturatze- eta publizitate-sarrerak	14.219.429,65	9.952.637,65
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>124.472.153,57</b>	<b>112.781.945,79</b>

(\*) UEFaren Women's Champions Leagueko finala ospatzetik eratorritako diru-sarrerak barne.

### Emankizunengatiko diru-sarrerak:

Honako xehetasun hauek ditu:

	2024.06.30	2023.06.30
Emankizunengatiko diru-sarrerak	67.508.283,62	66.573.731,89
Gainerako kategorien emankizunengatiko diru-sarrerak	519.444,73	654.395,67
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>68.027.728,35</b>	<b>67.228.127,56</b>

2016/2017 denboralditik indarrean dago 5/2015 Errege Lege-dekretua, apirilaren 30ekoa, eta futbol profesionaleko lehiaketetan ikus-entzunezko edukien ustiapen eskubideak merkaturatzearen gaineko neurri urgentei buruzkoa da. Izan ere, ikus-entzunezko edukien ustiapen eskubideen merkaturatze kolektiboa ezarrita dago futbol profesionalaren Lehen eta Bigarren A Mailetan (Futbol Profesionalen Liga, Kopa eta Superkopa), eta horren ondorioz, klub parte-hartzaileek eskubideen merkaturatze ahalmena nahitaez lagatzen diete erakunde antolatzaileei (FPL eta EEFF), eta azken hauek telebista operadoreen esanetara jartzen dituzte, E.D. barruan finkatutako baldintzen arabera eta CNMC-ek ikuskatuta.

E.D.-ak merkaturatze kolektiboen eskubideengatik jasotako diru-sarreraren banaketarako mekanismoa ezarri du, desberdintasunak

mugatzen dituzten irizpide zuzentzaileak sartzeko direlarik. Lehen eta Bigarren Mailen artean diru-sarrerak banatzen dira maila bakoitzean baldintza hauek aztertuta:

- Lortutako kirol emaitzak
- Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren ezarpena gizartearen (txarteldegia diru-bilketa eta abonatuak)
- Erakunde parte-hartzaile bakoitzaren ikusle-kopurua.

Horrez gain, E.D.-k klubei zenbait ekarpen egitera behartzen die (21.3 Oharra) beheko maileri eta beste kirol mota batzuei laguntzeko, eta Zerga-administrazioarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrak ordaintzeko bermatzen duen mekanismoa ezarri du.

### 21.5. Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa korronteko beste batzuk:

	2024.06.30	2023.06.30
Izakinen salmenta dendetan eta museoan	3.925.312,05	7.837.006,39
Errentamenduak	435.511,74	261.458,10
Diru-sarrerak (FPLN)	391.000,00	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>4.751.823,79</b>	<b>8.098.464,49</b>



**21.6.** Ekitaldiaren emaitzari gehitutako ustiapeneko diru-laguntzak.

Honako xehetasun hau dute:

	<b>2024.06.30</b>	<b>2023.06.30</b>
Beste batzuk	48.410,87	1.814,70
BFA (Pasa Baloi Neska)	60.000,00	60.000,00
Bizkaia Bizkaialde Fundazioa	56.641,00	-
Emakumezkoen futbol arbitrajea (Liga)	156.250,00	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>321.301,87</b>	<b>61.814,70</b>

Zenbait erakundek futbol ez-profesionala garatzeagatik jasotako diru-laguntzak dira nagusiki.

**21.7.** Bestelako emaitzak:

Honako xehetasun hauek dituzte:

	<b>2024.06.30</b>	<b>2023.06.30</b>
FPLN - Babesleak, lizentziak eta kinielak	-	231.382,85
FPLN – COVID gastuak	-266.418,93	-266.418,93
EEFF – Balio-harrobia	280.384,62	257.676,62
Selekzioan parte-hartzea	-	760.827,60
2018/2019 MediaPro	126.245,00	-
Beste batzuk	846.428,44	364.776,12
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>986.639,13</b>	<b>1.348.244,26</b>

**21.8.** Ibilgetu ukiezinetik, materialetik eta bestelakoetatik datozen emaitzak:

Honako xehetasun hauek aurkeztu dituzte:

	<b>2024.06.30</b>	<b>2023.06.30</b>
Eskailera mekanikoak	-	152.387,05
Jokalariak	6.611.500,00	-
<b>GUZTIRA eurotan</b>	<b>6.611.500,00</b>	<b>152.387,05</b>

## 22.OHARRA

### BESTE ARGIBIDE BATZUK

**22.1.** Ekitaldian, batez besteko langile kopurua hauxe izan da, kategoriaren arabera:

<b>Kategoria</b>	<b>2023/2024</b>	<b>2022/2023</b>
Jokalariak (emak./gizon.)	133,42	131,42
Talde teknikoa eta gainerakoak	232,25	220,67
<b>GUZTIRA</b>	<b>365,67</b>	<b>352,09</b>





**22.2.** Ekitaldiaren amaieran, langile kopurua hauxe izan da, generoen arabera:

Kategoria	2023/2024			2022/2023		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Jokalari profesionalak	79	59	138	79	49	128
Teknikoak eta gainerakoa	190	48	238	172	60	232
<b>GUZTIRA</b>	<b>269</b>	<b>107</b>	<b>376</b>	<b>251</b>	<b>109</b>	<b>360</b>

2023/2024 ekitaldietan, %33tik gorako desgaitasuna duten lau langile daude (pertsonek bat aurreko ekitaldian).

**22.3.** Auditoreentzako ordainsaria.

2023/2024 ekitaldiaren urteko kontuen auditoretzari dagokion gastua 30.808,18 eurokoa izan da (29.852,69 eurokoa aurreko ekitaldian).

Era berean, 2023/2024 ekitaldian auditore hauek Athletic Clubi 21.708,63 euro fakturatu diote eskainitako beste zerbitzu batzuegatik (21.064,27 euro aurreko ekitaldian).

**22.4.** Zuzendaritza-Batzordearentzako ordainsaria.

2022/2023 eta 2023/2024 ekitaldietan Zuzendaritza-Batzordeko kideek ez dute ordainsaririk jaso.

## 23. OHARRA

### INGURUMENARI BURUZKO ARGIBIDEA

Oro har, Athletic Cluben jardueretan ez dago eragin negatiborik ingurumenean. Horrenbestez, ez dago kostu edo inbertsio esanguratsurik balizko eragin horiek leuntzeko.

## 24. OHARRA

### GERORA GERTATUTAKOAK

Ez da gertakizun garrantzitsurik gertatu ekitaldiaren itxiera-datan bazeuden inguruabarretatik edo ekitaldia ixtean existitzen ez ziren baldintzetatik eratorrita, baldin eta 2024ko ekainaren 30eko urteko kontuei eragiten badiete eta aurreko oharretan deskribatu ez badira.

### KONTUAK ADIERAZTEKO DATA: 2024ko irailaren 17a



**Jon Uriarte Uranga**  
Presidentea



**Guillermo Ruiz-Longarte Pérez**  
Diruzaina



**Ibon Naberan Álvarez**  
Diruzainordea